


anaitasuna

1981.eko - ABENDUA ETA 1982.eko - URTARRILA. 415-6 ALEAK. 100 PEZETA

- ALFONSO IRIGOIENEKIN ELKARRIKUSKA
- PROSTITUTA GAUEZ, AMA BIHOTZEZ
- MUSIKA KRITIKA



**EA URTE BERRI
HOBEA DUGUN!**



egizu publizitatea
 zure
 gure
 aldizkarian
 Telf. 94/411 66 20

anaitasuna


AURKIBIDEA

- 3.or-: Aurkibidea eta oharrak
- 4.or-: Agiriak
- 5.or-: Postaz etorriak
- 6.or-: Ordutik Hona
- 10.Or-: **Hileko Dokumentua:** "Prostituta gaez, ama bihotzez".



Euskal Herria

- 14.Or-: Euskal Herriko presoak. Apaizen Pastoral Ekintzaren bateratzea mintzo.



Nazioartekoa

- 18.or-: Yanquiak El Salvador-en



Elkarrikuska

- 23.or-: Alfonso Irigoien: linguista eta beste hainbat gauza



- 27.or-: **Ekonomia:** Munduko Futbol Txapelketa: milioetako gaioa
- 28.or-: Komikia
- 29.or-: **ANAITASUNA**, lehenengo bertso-paperen lehiaketa.

Bihotz-Minez. Iñaki Lasari

- 30.or-: Zenbait artikulua eta olerki batu. **ANAITASUNAK** bere idazle izan den Iñakiren heriotza jakin bezain laster: Iñaki Lasa, asiskidea; Iñaki Lasari Bihotz-minez; Iñaki hil zaigu; Iñaki Lasari; eta abar.



Gaiak

- 34.or-: Aise eta Euskara Eskoletan
- 35.or-: Protoien energiaren kontra: Potroen indarra.
- 36.or-: Zain dezagun busturialdea.
- 37.or-: Saldutakoak
- 39.or-: Musika kritika

OHARRAK

— Orain dela urte betetik hona, gutxi gora behera, **ANAITASUNA**ren arduradunak aldatzen joan dira, eta gaurko taldean orduko bakar batzu baino ez dira geratzen. Talde berriztatu honek, 1982. urteko lehen ale honetan ohar batzu nahi dizute egin harpidedun eta irakurleoi:

1— Aldizkariaren edukia arindu, alaitu eta zabaldu nahi izango genuke. Arindu artikuluen aldetik, politikari garrantzi gehiegirik eman gabe eta artikulua teorizante luzeak gutxituz; alaitu sentidurik zabalean, gaurregun esaten den bezala "desdramatizatu", bizi dugun egoera tristea bada ere guk tristeago ez ipintzen ahalenginduz. Zabalga gaien eta idazleen aldetik.

2— Guretzat, Hegoaldean behintzat, harpidetzak kobratzeko erarik errezena eta merkeena bankuz da; beraz, postaz edo korreoz ordaitzen duzuenoi zera eskatzen dizuegu:

gutun bat idazteko edo telefonoz deitzeko zuen kontu korronterren edo libretaren zenbakia emateko. Bestalde, zuen harpidetzaz izan nahi dituzuen harreman guztietarako zuen harpide zenbakia aipa ezazue, harpide zenbakia duzue aldizkaria bidaltzean zuen izenarekin batera agertzen den zenbakia.

3— Aurten harpidedun izan nahi duzuontzat, hona hemen 1982.eko tarifak: Euskal Herrian 1500 pza.

Europar: 1750 pza.

Gainerako Herrialdeetan: 2000 pza.

4— **ANAITASUNA** ez da arduratuko artikuluen edukiek duketen erantzukizunaz, beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestalde, aurreko **ANAITASUNA**, Urrezko Astabelarriak deritzogun sailan, hutsunean izan genuen ondorengo hau esanez: "Bide batez Zarautz Udaleko itzultzaileari emango dizkiogu hile honetako urrezko astabelarriak". Egia esan, ez zen aipa Zarautz Udaleko Itzultzailea

itzulpenaren erantzulea. Hau dela eta parkamena eskatu behar diogu eta Urteberriko urrezko astabelarriak guretzak gordetzen ditugu.

ZUZENDARITZAK.

ANAITASUNAn lankide gaituzu:

- I. Alvarez
- I. Antiguedad
- J.I. Basterretxea
- J.R. Bilbao
- J.L. Davant
- J.R. Egiluz
- M.J. Esteban
- J.R. Etxebarria
- Harotza
- K. Landa
- I. Lasa
- J.M. Pastor
- X. Portugal
- I. Saez
- Z. Zorrotza
- R. Zumalabe



AGIRIAK

Herritar adixkide,
Jaun, Anderea

Jakina dukezun bezala, Euskadun zenbait bildu dira beren xede berria Ipar Euskadiko kultura talde gehienari jakinarazi eta. Horrela hamabost jaun eta andereen artean ikertu dugu eta lantu euskarazko irratia ren xede eder hori eta berehala multxoka lanean hasi.

Zuzendaritza hortarik bozkatu bulegoa hau xe gelditzen da:

Badakigu, zorionez, badela bertze irratirik ere gure hizkuntza erabiltzen duenik.

Bainan uste dugu ez duela berdin balioko arrunt euskarazko irratia batek, hau entseaturko baita nehundik ahal bada ipar aldeko xoko guzietarat heltzeko behar den indarrarekin, baimenak hortarako ardiesten balinbaditugu.

Euskaldunek arrunt euskarazko irratia bat egun guzietz, hori da gure xedea Eta hain



ENTZUN IKUS

EUSKAL ERAKUSTOKIA

1, Marengo karrika

64100 BAIONA

Enaut LARRALDE, inginadore, Izurakoa.

DIRUZAIN:
Txomin HEGUY, Irakasle.
Arrangoitzekoa.

IDAZKARI:
Ttote OXANDABARATZ,
enpleatua, Azkaindarra.

Dudarik ez da diruaren beharretan dela orai gure batasuna holako lan premiatsu bateri lotzeko.

Orai, adixkidea, zuri gaudete, pentsatur, zure lan guzietz artetik, zuk ere indar berezi bat egin nahiko duzula zure laguntza emanez, zure ahaleen erabera bixtan dena.

segur zurea ere. Dela gure etxetan, herrietan, ikastola, eskola, gau eskoletan eta bertze tokietan... egiten diren indar guzietz zinez lauzkatzeko.

Zure laguntza onaren behar gaudete eta oraitik hortaz esker beroenak bihurtzen bihotzetik.

"ENTZUN IKUS"
Batasuna

OHARRA: Zure laguntza, xekaz edo bertze gisaz. igor zuzenbide honetaratz:

ENTZUN IKUS
Euskal Erakustokia

1, Marengo karrika
64100 BAIONA

ARAUAK

1.- Partehartzaileak

Jarritako epeetan lanak bidaltzen dituzten guzietz har dezakete parte txapelketa honetan.

2.- Hizkuntza

Euskara eta partehartzaile bakoitzak nahi beste lan desberdin aurkez dezake.

3.- Gaia

Ipuin, nobela, saio, eta abar, forma egilearen eskuetan gelditzen delarik eta ondoko gai honi dagokiola:

"Egun bat gutxitu fisiokoaren bizitzan", hauek egunereko bizitzan aurkitzen dituzten arazo, egoera, zailtasun, oztopo fisiokoak, psikologikoak, gizarte mailakoak eta beste ingurumenak, kontutan harturik. Ezin daitezke aurketzu beste txapelketa-

Literatur Txapelketa
AUXILIA. 18 urtetik gorakoak.

6.- Libratzeko epea

1982.ko Martxoaren 15 ean amaituko da.

7.- Bidalpenaren helbidea

Eskuz edo postaz libratuko dira:
AUXILIA-Teniente Gurra, 2 bajo - Bilbo-14. Lan orduak: Astegunetan: 9etatik 13,30etara eta 4etatik 7etara.

8.- Epaimahaia

Hauek osatuko dute: Goizon Garate, Xabier Gereño, Juan Luis Goikoe txea, Xabier Amuriza eta Xabier Lete. Epaimahaiaren idazkaria AUXILIA elkartereko bat izango da.

9.- Sariak

Ondoko hauek izango dira:

AUXILIA



LITERATUR

TXAPEL-KETA.

ren batetan saritutako lanak.

4.- Lanaren luzera

Originalen luzera ez da izango, alde batetik eta bitarte bakoitzak utziz makinatutako 15 folio baino gutxiagokoa.

5.- Aurkezpena

a) Lan bakoitzeko 3 kopia aurkeztuko dira egilearen sinadurarik ez seinalerik gabe.

b) Lan bakoitzak ezaugarri (lema) bat eramango du.

d) Lana, aurrean ezaugarria eramango duen eztalki batekin batera libratuko da. Eta bere barruan, partehartzailearen izen-abizenak eta helbidea. e) Eztalki honek, aurrean, seinale hau ere eramango du:

- Lehen saria, 60.000 pezeta eta Nestor Basterretxeak egindako eskultura batek osaturik.

- Bigarren saria, 25.000 pezeta eta Nestor Basterretxeak egindako eskultura batek osaturik.

- Hirugarren saria 10.000 pezeta eta Nestor Basterretxeak egindako eskultura batek osaturik.

10.- Epai

1982.ko Apirilaren 3an emango eta komunikabideen zehar ezagutaraziko da. Epaiak apelazina izango da.

11.- Saritutako lanak

AUXILIAk, 6 hilabetez eta argitarapenerako, lan sarituz aukera eskubidea gordeko du.

12.- Saritu gabeko lanak

Egileek edo berain baimena dutenek, 60 egun barru, AUXILIAk hartzeko ohalmeda izango dute.

EUSKAL TELEBISTA (euskara)

Orain dela gutxi euskarentzat komenigarritzat jotzen nuen geure buruak pixkat "faxistatzea", hau da: euskara gehiago erabili arma bezala edo. Berehalaxe ihar-despena jazo nuen "Oh Euzkaditik, Joxean Muñozen eskutik. Agian horrexen intransigentea ez naizela (eklektikotasuna gorrotagarriesten dut gero!) frogatzeko, ez natorrela batera adostxo Luis Maria Musikak botatakoekin esango dut. Zeraxe irakur dezakegu azken Anaitasunan: (415.alea, 12.orr.) "nik, pertsonalki, eta kokoa jan arren, edozein amerikana euskaraz nahiago dut erdaraz egongo den azken banguardismoa baino. Ezin daiteke egin gizartearen konponbide sozialik euskara zapaldua egonez". Honixe, ezin esanezkoa (hobe "ez esanezkoa" beharbada, esan baitaiteke esan) deritzot, edo, behintzat, textuinguru argitzailea behar duela.

Benetan, telebistak izugarritzko kaltea egiten dio euskaldunari, egiten digu. Hau, bakar-bakarrik, hizkuntz aldetik, hizkuntza soilari dago-kionaz bezainbatean. Telebista (irratiarekin batera), gaur dagoen moduan, euskararen egoera diglosikoa iraunerazteko biderik aproposena da. Euskaldun ume asko dago ikastoletan hezkuntza euskaraz bereganatuz, baina, ikastolatik irten eta non pasatzen dute ordu luze dextente?: telebista aurrean. Gaztelaniatzko esaerak dioten bezala, "baliagarriagoa imajina bat mila hitz baiño". Baina gaitzena imajina horiek mintzamolde konkretu batekin lagunduak doazela da. Imajinak erakartzen du. Ikuslea beretatzen du. Zein umetxori ez zaizkio gustatzen marrazki bitzituak? Umeak bizi egiten du pantailan ikusten eta entzuten duena. Eta ez bakarrik umeak. Zinegeletan, zergatik askok negar emateari ematen dio?

Telebista euskaraz izanez, zalantzarik ez, arazoa beste-

lakoia izango litzateke. Hala ere, nahigarriago izango dea edozein ziztrinkeria euskaraz, nondik oratzerik ez duena, erdarazko miragarritzko lan bat baino? Kondenatuta gaude eta sufritu behar dugu?

Nire aburuz ez dugu hain "masokak" izan behar. Noski, gaur eguneko espainiar telebista ezin txarragoak bi aldetatik egiten digu kaltea: txarra izateagatik (kalitatea: ideologia, tratamendua...) eta erdaraz egoteagatik. Txarra izan arren, euskaraz beharko genuke. Ordea nik, euskaraz egonda ere, ez nuke edozein piltzar okaztagarri onartuko. Telebista euskaraz behar dugu, eta telebista ona, edo gutxienezko kalitate maila batekin.

Sarri aipatua izan da euskal aldizkariak irakurtzeko (ez denak) militantismoa behar dela, edo behar zela. Telebistarekin ez litzateke berbera gertatuko, buru laukituek, telebistatuek, edozelako zaborrontzi irensten baitute. Aparailu aurrean eseri eta entzan... Baina hori ez da arazoa.

Euskarak adozertarako balio du: horrexegatik euskal telebista ona behar dugu.

Ez dugu goardia jaitsi behar. Dena dela, nik ere: "Elena Francis Euskaraz"! Karlos Santisteban

HORI EZ DA GURE HELBURUA

Azken Anaitasunan, Luis Mari Muxikari egiten diózuen elkarrizketan, gauza harrigarri bat irakurri dut; hau da, Muxikak elkarrizketaren momentu batetan, zerau esaten du: "Nik, pertsonalki, eta kokoa jan arren, edozein amerikana euskaraz nahiago dut erdaraz egongo den azken banguardismoa baino". Harrigarria batez ere, gure hizkuntza "zaintzen" duen pertsona bategandik datorrelako.

Ene ustez, holako gauzak esatea oso arriskugarria da, zeren euskara bada erabili nahi dugun tresna (komunikabideetan kasu honetan), ez du

ezertarako balioko edukia hutsa bada, eta hutsa, niretzat, amerikanadez eta halako gauzen beteta egotea da. Ezin dugu pentsatu lehenago euskarazipiñiko dugula, eta gero, aldatuko dugula edukia. Hasieratik egin behar da ondo (noski, "ondo" hitzak, azepzio asko eduki ahal ditu), ahal den neurrian behintzat. Gure helburuak ez luke izan beharko oraingo telebista espainola bezalako bat, adibidez.

Nik neuk, behintzat, azken banguardismoa nahiago dut, eta euskaraz badago, askoz hobe.

M.L. Esteban

Txabarri, HABE-ren zuzendaria, Jesus M.a

Txabarri, HABE-ren zuzendaria, Jesus M.^a Larrazabal, Gipuzkoako Diputazioetik, eta Beni Agirre eta Gabika, Gipuzkoako eta Bizkaiko AEK-ren arduradunak partaide zirelarik ireki zen ostegunean Eibaren euskararekiko plangintzaz eginiko mahai-inguruja Donosti Aurrezki Kuxta Munizipalaren aretoan. Portaide bakoitzak adineko iendearen euskalduntze eta alfabetatzeko gaietan zer egin duen eta egiteko dituen asmak azaldu zituen.

Txabarrik, HABE euskarak behar dituen azpiegiturak eta funtzionariak sotzen ari dela esan zuen, eta erakunde instituzionala denez gero, Euskal Parlamentuaren pean dagoela. Linea berdinari jarraituz, orain dela bi urte, jarraipen instituzional hori AEK-ri proposatu zitzaioela zioen, baina AEK-k bere burua autogestio-naritzat duelako eta burokratiziarik onartzen ez duelako, ez zuen proposamen hura onartu. Orduan, Gobernuak kontrol burokratiko nahi duenez, HABE sortu du.

Beni Agirrek, AEK-ren Gipuzkoako arduradunak, AEK-ren lana, lehengo eta oraingo ere, publikoa dela argitu zuen, erakunde publiko bat delako, baina subentzio faltan daudela azaldu zuen, ikasleen dirua bakarrik etortzen baitzaie. Euskararekiko Hiz-

kuntz Plangintzaz, Euskal Gobernuaren eskuetan dagoela esan zuen, eta aurrera eramateko AEK-rekin eta bere esperimentiarekin kontaktu behar duela, inolaz ere ezin dituelako marjinatu; eta honez gainera, Gipuzkoako Batzordeak laster argitaratuko diren datubilketa burutu duela esan zuen.

HABE dela eta, "hobe litzateke, Gobernuaren aldetik, erakunde berriak sortu beharrean, daudenak bultzatzea eta indartzea" behitu zuen. Gabika, AEK-ren Bizkaiko arduraduna mintzatu zenean Txabarrik esandakoa ezeztatu zuen, zeren AEK, orain dela urte bi, Eusko Kontseilu Nagusiarekin elkarrizketan bazegoen, Euskal Gobernuak sortu zenean, elkarrizketak puskatu egin baitziren, eta Gobernuak HABE kreatu zuen, AEK-rekin kontaktatu eta kontaktu gabe; eta gainera, AEK desprestigiatzeko kanpaina bat eginik.

Larrazabal, Diputazioaren eginkizunez mintzatu zen. Nahiz eta udalaren lekua inon ikusten ez den, eta udaletan ezer gutxi egin arren, behintzat Diputazioak orain arte egin dituen eginkizunak zertxobait izan direla, zeren hobe gaitz miloiko presupostuarekin lan urgenteak egitea bideratu baitu. Esan zuen, halaber, egoera soziala zeharo negatiboa dela, inork bultzatzen ez duelako, eta egoera horrekin euskarazko batzordearen eginkizuna, lehendik dabilzan talde edo erakundeak bultzatzea eta iniziatiba berriei laguntzea izan litekeela.

Honi loturik, Gabikak Amatiñok eta Txabarrik 1979an Valenciako Jardunaldietan esan zutena oroitu zuen: "Las instituciones oficiales apoyarán, canalizarán y promoverán, pero nunca suplantarán el papel de las iniciativas populares, y menos aún en el País Vasco dada su dinámica popular de lucha surgida en los últimos años". Hitz hauek zergatik ez diren betetzen itaundu ziolarik.

A.E.K.

AZAROA

24

Atzo greba orokorraren eguna izan zen. Gaurko egunkarien hari nagusia hortik abiatzen da. Ba dakizue: betikoa! Batzuren eritziz, izugarrizko arrakasta izan du; besterenean, ordea, negatiboa izan da. Beti ere ez baita guztien gustua egiterik. Edozein kasutan, zenbait tokitan greba hau erabat osoa izan da (Basauri, Ondarroa, Santutxu,...) eta arratsean antolatutako manifestazioetan ere jende piloa egon da, horieta-

mila pertsonatako Armada bat sortu nahi du; eta horretarako publikoki hitz egin du; eta talde paramilitarrak agerian agertzen dira, hauetariko partaide askoren aurpegiak estali gabe ikus daitezkeelarik. Horiengatik inork ez dio "terroristak" direnik, nahiz eta azken egunotan zenbait pertsona hil dituzten. Zertan gaude, ba? Dena den, hauk Ingalaterrarekiko loturaren aldekoak direla dakigu eta horrek zerbait argi dezake arazoa.

Herri desberdinen arteko paralelismoa sortzea arriskugarria da, baldintzak sekula

desarmaketari buruzko elkarriketan hasteko omen direlako da. Desarmatuko dituen desarmatzailea, desamartzaile ona izango da, agian!

Bestalde, ia inor enteratu gabe, Espainiako Senatuak baietza eman dio NATO famatuari. PNVak ere bai, noski!

27

ETak SA. Echevarriaren subestazio elektriko baten aurka atentatu omen du.

Atzean geratu zen greba orokorraren eguna. Baina SAE lantegiko arazoak zutik dirau. Eta langileen batzarre bate-

28

Futbolzale euskaldunontzat triste samarra gertatu da egun hau. Hain ondo zihoan Errealak, galdu egin du Zaragozaren aurka. Telebistaz ikusi ahal izan dugu, besteren merituz baino norberaren hiruhutsaldien erruz galduriko partidua. Zer lastima! Hala ere, gehiago penatu ninduten jendeak gure jokalariei aurka botariko oihuek. Nola liteke estadio bat besterik gabe "asesinos" oihukatzen hastea? Ez digu kalte makala egiten telebista eta prentsako atengabeko "terrorismo" kanpainak!



riko batzu ezin egin ahal izan diren arren. Ezintasunaren kausa azaltzen, ez dut tintarik gastatuko.

Gaurko egunkarietako berrietan, benetan bitxia den bat aurkitu dut. Atletiaren kapitaina den Txetxu Rojori, korner bat ateratzera zihoala, atzetik, polizia batek ostikada bat eman dio. Arbitroak ez dio txartelik erakutsi "txapel-dunari", bai, oster, ezer pasatu ez balitz bezala jokatzeko esan kapitainari. NO COMMENT!

25

Ipar Irlandan gauza harri-garriak gertatzen dira. Ian Paisley izeneko deputatuak ehun

ere ez baitira berberak. Baina Euskal Herriaren eta Irlandaren problematikek ba dute elkarren antzik zenbait puntutan. Hizkuntzaren arloan, hala ere, prozesu desberdina sortzeko ahaleginetan ari gara; eta esperantza ere ba dut, lortuko dugulakoan. Bestelako arloetan ere zerbait ikasiko ahal dugu!

26

Breznev eta Reagan. Munduko jauntxoak buruetako bi. Ez dugu arazoa gehiegirik sinplifikatu nahi eta, horregatik, ez ditugu besterik gabe bi bloke famatuak maila berean ipiniko. Dena den, gaur albiste modura aipatzen baditugu,

tan, botazioz, ELA-Aceriales-SAE hirukotearen arteko akordioak baztertuak izan dira. Enpresako komiteak zuzenean negoziatu nahi du enpresarekin; ez du bitartekorik nahi.

"Buru ilhun lurruntsua" edo Euskaldunak Everest mendian. Hauxe dugu Felipe Uriarte mendizaleak prestatu duen liburuaren izenburua. Bi ediziotan agertuko omen da: euskaraz eta erdaraz. Eta honetaz, ohar bat: lehenik aurkeztu dena, euskaraz dagoena izan da. Zorionak eta ea jarraitzaileak dagoen!

"Irun Hiria" deituriko sarien banaketarako erabakiak, publiko egin dira. Euskarazko nobela-saria banatu gabe gertatu den bitartean, ipuinen saillekoa Bernardo Atxagarentzat izan da eta poesien saillekoa, Arantza Urretabizkaiarentzat izan da eta poesien saillekoa, Arantza Urretabizkaiarentzat. Zorionak bie!

29

Igandea denez, jai. Jaiak aipatzen hasiz, ezin ditugu ahanzi, AEK erakundeak Bil-

boko Arenalean igandero antolatzen dituen bertso-saioak. Banda Munizipalak eskaintzen dituen kontzertuen deskantsuan hasi eta kontzertua bukatu ordoren segituz, bilbotarrok eta bertara hurbiltzen diren euskaldunek aukera ederra dugu bertsolarien lanaz goratzeko. Eguzkia zein euri, saio ederra dugu bertsolarien lanaz goratzeko. Eguzkia zein euri, saio ederra kale erdian. Lehen epe batetan hamar bat saio antolatu dituzte, Bilboko Udalren babespean. Zorionak hain ideia bikaina gorpuztu dutenei!

Gaur enbeitatarrek kantatu dute. Balerdin buru zutela, gogor aridira beraren seme eta lobak (Sarduitarrak), Areatzako bertsolari-eskola joriaren erakusteta bikaina eginez, Bertsoan non, eta Bilbon!

30

Mutil eder samarra. Lide-rra omen. Urralburuk burua non duen ez dakiela diote batzuk. Nik neuk, ostera, ba dakiela uste dut: beti eduki duen tokian, toki berean, Espainiako batasun sakratuan, alegia.

Ahal duen herrietan, Udaletxeetan dagoen ikurrina begien bistatik kenduko du. Dute. Eta begien bistatik diot, bihotzetan tinkoago geratuko baita. Eta indarra duten lekuetan kenduko dutela adierazten digu. Indarrez kenduko dute, beraz. Hartzen dugu nota.

ABENDUA

1

Espanian gobernu berria aukeratu dute. Ezin esan daiteke "txakur berberak idunekoa desberdina dutenik", idunekoa berriak erosteko dirua agortu egin delako. nonbait. Betikoak. Betikoa. Eta gure lagun estimagarriak barne di-relarik.

Roson betiko tokian, eterna bailitzen. San Martin eguna joan zen arren, Martin Villa gorantz doa. Aingerua ote? Pu turik altuenera, gorenera, heitzeko, bi gauza falta zaizkio soilik: lehendakaria izatea eta errege izatea. Badaezpada, dan lortuko ez dituela adierazteko, ez nuke eskua sutan jarriko. eta zuek?

2

Istripu izugarria gertatu da atzo Korsikan. Jugoslaviatik zetorren hegazkin batek mendian baten kontra jo eta ehun eta hirurogeitamasei pertsona hil. Istripu hauek duten gazarik txarrena, gertatu egiten direla. Gainera, tristeena, batzutan medio egokirik jartzen ez delako gertatzen direla ja-

eduki duten Iñaki Urrutikoe-txea kapitainak, gauza harrigarriak esan ditu Punto y Hora-n. Ni neuk, lehen uneko harridura pasatu ondoren, nahiko eszeptiko geratu naiz, deklarazio horietan hainbeste kontraesan aurkitzen baititut. Hala ere, klase politikoa asaldaturik geratu da. "Zoraturik dago" diote batzuk, beren buruak sano baileuden. "Kargu horretatik kendu behar da" diote bestek, beren karguari ongi erantzungo bailioten, "Expedientatu egin behar da" berak ere expedientatu behar ez bailieren... Hainbestearinokoa izan ote da, ba? Azken batez, tesi ofizialak azpimarratu ez dituelako. Zeren eta esan duena, Herri honetan behintzat, batxiler titulua atera gabe ere ba daki jendeak.



kitea da. Adibidez, Ajaccio-ko aireportuaren kasuan, ez omen dute erredar aparatirik hegazkinak kontrolatzeko, duela zenbait urtetik hona eskatzen egon diren arren. Gero, errua lainoarena izan dela esango dute. Eta erremediorik ez dagoenean ipiniko dute erremedioa.

3

Euskadiko Polizia Autonomoaren buru izateko prest

Dena den, berek atera dute saltsa; berek konpon dezatela.

4

Gaurko berriaren bila Unibertsitatera joan naiz. Askoren ustez, berri txikia, agian; baina euskararen aldeko lanetan gabiltzanontzat pauso interesgarria delakoan, beste guztien gainetik azpimarratuko dut, nahiz eta aldizkari arruntetan agertu ere ez den egin.

Juan Mari Agirregabiria izeneko fisikari euskaldunak, Fisikaren arloan aurkeztu den lehen tesi doktoralaren defentsa publikoa egin zuen Leioako Campus-eko graduaretoan. Tesiaren izanburua: "Tetramomentu lineala eta angeluarra ingurune jarraien eta interakzionatzen ari diren partikulen sistemen Mekanika Erlatibistan". Gehiegi gure gorputzarentzat! Tesiaren defentsa entzuten egon ginenok, harriturik geratu ginen erakutsi zuen azaltzeko erraztasunaren goxotasunaz. Esan gabe doa, kalifikaziorik gorena lortu zuela. Ikerkuntzazko lan berrien zuzpergarri izango delakoan, zorionak. Juan Mari!

5

Durangon Euskal liburu eta diskoen azoka dugu gaurdanik. Inoiz baino argitaldari gehiago; inoiz baino jende gehiago.

Ez dakit onerako edo txarrerako izango den, baina errealitate sendoa bihurtu zaigu azoka hau. Bide luzea egin du duela hamabost urtetik hona eta, besterik ez bada ere, hizurpalau egunetan, euskal kulturaren inguruan dabilen jendearen bilgune gertatzen da. Urte osoan zehar ikusten ez diren aurpegiak berrikusteko aukera ohi dugu Durangon. Beno. Ez aurpegi guztiak. Aurten, adibidez, faltan izan dugu Joseba Sarrionandia, Espainiako Audiencia Nacional delakoaren ustez ez baita batzu nahi bezain txintxo. Baina pertsonalki ikusi ez badugu ere, bertan izan da Joseba, beraren izenean presoentzako liburuak bildu direnean. Izan ere, guk Madrilgoez beste modu batez hartzen (eta onartzen) baititugu preso horik.

6

Espanian, bertako konstituzioaren eguna ospatu omen da gaur. Hor zehar, leku guz-

tietan Espainiako bandera nagusi. Ikusi al duzue horrelakorik hemengo herrietan?

7 Bai, bai! Ba dakit Barakaldon PSOEek ekitalditxo bat egin duela eta Gasteizen ere, Espainia mailan antolaturik dauden lau alderdi nagusiek zerbait muntatu dutela, bi sindikatu nagusien laguntzarekin. Ba al dakizue zenbat lagun bildu diren Gasteizko Mendizorrotza Polikiroldegiara? 300 (hirurehun). Gasteiz handia da, gero!

Kolmorako, Huelva-ko gobernadoreak milioierdiko isuna jarri dio Zuloaga futbolariari, Espainiako himnoa jotzen ari ziren bitartean guztiz geldi egon ez delako. Eta Palenciakoak zigortu egingo omen du Erandio taldea. Zergatik ez ditu zigortzen, atengabe "hijoputas" era "asesinos" esaten dabilen publikoa? Horretan, dudarik gabe, iraina baitago.

8 Anaitasuna honetako idazlea izan den Iñaki Lasa Iguain hil egin da. Mendian zebilela amildu eta hil. Hogeitabi urte. Bizitzan agertu zuen alaitasuna eta Naturerekiko maitasuna ez ahal dira hilgo!

Gaia aldatuz, a zer iskanbila sortu den ehun militarren idazkiarekin! Militarren buru batzu ikaratu egin direla esaten badizuet, arazoak izan duen garrantziaren neurria izango duzue. Zer gertatzen ote da Espainiako militarrekin? Lehendik ere bagenekien izkutuko eskusartzeak egitea gustatzen zitzaizela, baina otsailaren hogeitahiru famatu hartatik hona, eskusartze horik lotsagabeki egitera auzartzen hasi direla dirudi. Gainera, beren musikaren intentsitatea "in crescendo" doa. Non bukatuko dugun ez dakit, baina on litzateke, etorkizun beltzagoen posibilitate hurbila ikusiz, autodefentsarako eta superbizimenerako bideak asmatzea eta praktikan pintzea.

8 Militarrekin segitzen dugu. Espainiako Defentsarako Ministroa den Alberto Oliart-ek eta Madrilgo Kapitain Generala den Quintana Lacacci-ek egintza bereziak egin omen dituzte "Brunete n.º 1" deritzon dibisioan. Kartila irakurri omen diete bertako buruzagiei. Ez dakigu zer pentsa. Espainiako erregea kanpora joan delarik, saltsa bizia prestatu dute ofizialek; pipermin eta guzti. Baina begira zein buru argikoak diren: Iskribu famatua sinatu dutenen artean, kapitainez gorakorik ez omen da izan. Uste al duzue, goragoko buruzagiek ezer jakin gabe egon zitezkeela? eta baldin bazekiten, zergatik ez ote zuten arazoa lehenagotik zuzendu? Nor ibili ote da horren atzetik? Ez ote dira kasualitate gehiegi?

dute igoeraren bat. Badaezpada, ni neu ez nintzateke askorik fidatuko, gaurko albiste militarren inguruan baitabil zoritxarrez.

Bestetik, "Batallón Vasco-español"-ekoek esan dutenez, berak izan dira Frantziako hegoaldeko Foix-en material militarra lapurtu dutenak: 128 metraileta, 10 fusil, 3 granada-jaurtikigailu,... Kontuz, beraz, Kontuz!

10 Lehen ikurrina gora; orain ikurrina behera. Zertan gertatzen gara? Nafarroako PSOEkoek Iruñeko udaletxetik ikurrina kentzea lortu dute azkenean. Baina beste zerbait ere lortu dute: aldeko gutxi eta aurkako asko (etsai ez esatearren). Agian, epe oso laburrez ez zaigu gauza onik etorriko PSOEtarren erabaki horren ondoren. Dena den, esperantza dut, epe ertain eta luzetara oso onuragarri gertatuko dela euskaldunontzat, uste baitut, orain arteko nafar euskaldun abertzaleek berean

11 Ikurrinaren arazoak sorturiko sua, ez da oraindik itzali. Iruñeko zinegotzi abertzaleek alkatearen dimisioa eskatu dute. Beraien laguntza hautatua izan zen beraz; eta nola ordaindu dituen! Mila esker. Arazoa luze doa.

SA Echevarriakoa luze doan legez. Atzo Bilboko erdiguneko bankuetxe nagusiak poliziak babesturik zeuden. Ez digute azaldu behar noren alde dauden poliziok, langilei eman zien bakarra hauxe izan baitzen: palo piloa. Detentiuak ere izan ziren, bestalde. Fruituez ezagutzen omen da arbola.

12 SAEko arazoarekin luzerako dugu. Gaur, bertako langileen emazteak, Bilboko Arenalera joan eta bertako kioskoan geratu dira gau osoa pasatzen. Animorik ez zaie falta.

Batzu gartzela handian eta beste batzu gartzela txikian; benetako gartzelan alegia. Gosegreban hasi dira Puerto eta Yeserias-ko espetxeetan dauden ETako presoak. Gabonak heltzen ari direla, indar handiagok kantatu beharko dugu "hator, hator mutil etxera"

Iruñeko ikurrinaren kontua oraindik irentsi gabe gaudelarik, hara non enteratzen garen, Parlamentuko Hazienda Foralak 330 milioi pezetako laguntza eman diola Opus-ek bertan duen Unibertsitateari, une berean Eusko Ikaskuntzari 4 milioitako laguntza ukatuz. Bapo mutilak!

13 Idande honetan etxeko albiste batek eta kanpoko beste batek hunkitu naute.



IÑAKI LASA IGUAIN
Lana eta bizitzako alaitasuna
batera erabili zenituen lumaz.
Ikasleren batek hartuko
ahal du zure idazluma!
Anaitasunako langileak

9 Landelino Lavilla jaunak, Espainiako Kongresuko Burua bera, hitzaldi luzea egin du beren konstituzioaren alde. Kontuz! "Patu beltzetan pentsatzeko arrazoirik ez dagoela" esan du; hauek "gasolinaren prezioa igongo ez dela" esaten dutenean, in mente

iraungo dutela, eta orain arte ez ardo ez ur ez ziren beste asko, euskaldun direla konturatu direla edo, nahi baduzue, nafar, eta ez espainol, oraingo honetan adierazi nahi izan dieten bezala.

Batetik, Larrabetzun egin den hautatuen batzarrea, herri horretako alkate zinegotzien aurka egin nahi den epaiketa dela eta. Espainiako erregeari buruz Herri honetan dagoen eritzirik politikoa agerzteagatik, sei urtetako gartzela eskatzen omen du fiskalak. Gero autonomia dugula entzuteko!

Bestetik, Poloniako lege martzialak ikaratu egin gaitu. Azkenean, militarrek berek dakiten moduan konpondu gura dituzte gauzak. Konponduko dituzten ala ez, hori nik ez dakit, baina buruan ditut, batzuk jasan beharko dituzten detentzio eta gartzelak. Gure Herrian antzera pasatzen delako, batez ere.

14 Astelehen honetan Poloniako tragediaren azken —azkenena?— aktua hasi da. Jarużelski generalak esan duenez, txorradak eta "solidaritateak" alde batetara utzi eta lantza eskuan duenak indar guztiak bere. Hotzikarak sortzen zaizkit gorputzean, hango gartzelatuen —hilak ere da daude— egoera nolakoa izan daitekeen pentsatzean.

Gure artean ere sintoma oso txarrak ikusten hasi naiz. Gaur, adibidez, Bilboko "Hoya del lunes" aldizkarian, zortzi orrialdetako panfleto ultraeskuindarra argitaratu dute, aparteko koaderno berezi gisa eta hamahiru estatutako "Sociedades de Defensa de la Tradición, Familia y Propiedad, TFP" misteriotsu batzuk ordaindua, antza denez. Publizitate gisa ordaindu badute, ez daude gaizki diru-kontuan. Zer kanpaina ote da hori?

Gaur R.M. Azkue sariak banatu dira. Nobelak, Gotzon Garate izan da irabazlea; poesian, J.L. Davant; eta ikerkuntzan, bosten artean banatu da saria: I. Antigüedad (Geologia), J. Agirreazkuenaga (Historia); A. Rodríguez (Kimika); K. Sarasola (Fisika) eta J.M. Madariaga (Biologia).



15 Polonia da guztiok buruan dugun herria. Dirudienez, militarrek gogor dabilta eta ez zaizkigu berri fidagarriak helitzen, informazioa bera ere kontrolaturik baitago. Dena den, hilak eta gartzelatuak ugari dira.

16 Larrabetzuko alkate-zinegotzien aurkako epaiketa, hasi eta laster geldi erazi egin da, fiskalaren eskariari jarraituz. Ordurako epaituek beren deklarazioak eginak zituzten eta bai lekukoek ere. Nola uler daiteke fiskalaren jokabidea? Itxura osoa du, epaiketaren inguruan egin den mobilizazioa dela kausa egin duela atzerantz. Era desberdinetako erakunde eta udalke beren elkartasuna erakutsi diete larrabetzuarrei. Eta Larrabetzuko greba osoarekin adierazi du bere eritzia.

Gaia aldatuz, baina antzerako hariari lotuz, gaur hasi da Eusko Parlamentuan —Legibiltzarrean alegia— Lemoizko zentral nuklearrari buruzko eztabaida. PNVak berak ere emergentzi kasurako ebakuazio-planik ez dagoela onartu arren, bukatu dagoen zentral hori, Ekonomia amaren izenean "demokratikoki" inposatu nahi digutela dirudi. Arrazoiak faltan, ez zaie botorik faltako, agian.

17 Israeldarrek Golan inguruko lurak bereganatu dituzte. Siriarrak gerrarako prest. Neguko giro politikoa berotzen ari da. Polonia dela, Israel dela, zertan bukatuko ote da? 1982. urtean hirugarren mundu-gerra datorrela diote, munduan zehar hain zabaldu diren dauden azti eta sasi-igarleek. Nork jakin! Baina gerra egoeran bizi garenik ezin uka; gerra psikologikoa, beldurra sartzeko, egunero gertatzen ari da. Hezurren muinetaraino sartzen baitigute egunero beldurra. Eta beldurra dagoenean nork irabazten duen jakiteko, ez da askorik, gehiegirik, pentsatu behar.

18 Aurrera doa Lemoizko buzurko eztabaida. PNVak berriro plazaratu du erreferenduen arazoa, ipuina, esango nuke nik. "Euskadiko herriak nahi badu" dio, Euskadi mailan erreferendurik ezin egin daitekeela jakin arren. Calvo Sotelo behin baino gehiagotan Espainiako Konstituzioa eskuan duela gogora erazi digun bezala. Bestalde, Olaberriren eritziz, Lemoizko zentralaren inguruan "armada pribatua" sortuko bide da. Pribatua soilik? galdetzeraz auzatuko nintzateke, zentral nuklearren arazoetariko bat, inguruetako gizartearen militarizazioa dela gogoratuz. Ala kasualitate hutsez joan dira militarrek Mungira? Eta zertan dabilta UAR famatuak, Getxo aldean instalatu nahiz?

19 Euskal telebista eta irratiaren aldeko manifestaldiak ospatu dira Bilbo, Donostia eta Iruñean. Bihar, Gasteizen. Jenderik gehien, "euskalduna ez omen den" Iruñean. Ezpatak zorrotz eta adi egon beharko dugu, aspaldi opaturiko komunikabide euskaldunak ez baitira heltzen eta euskarak baztertuta izaten segitzen baitu. Jarrera militantea hartuz, zerbait lortuko dugu beharbada; baina segurua dena, goardia beheratuz, aurpegiko galantak hartuko ditugula. Beraz, buruak erne, begiak argi eta lanerako prest.

20 PŞOEkoek ez dakite zer asma, ikurrinaren arazoarekin Euskal Herrian ireki dituzten zaurien ondoren beren kontra zabaldu den eritzia estaltzeko. Orain beren alternatiba "zoragarria" eskaintzen digute: "NI integración, ni separación: Consejo vasco-navarro" Irakurri dudak bezala agertzen dizeute; erdaraz noski. Amerika berraurkitu dutela dirudi, baina horretarako ez zen hainbeste zalapartarik egin behar. Gutxiago oraindik, kontu hori Ekainaren 20an erabakirik bazuten. Edozertara, nik neuk kezka bat dut, kontseilu hori ez ote den ez "vasco" ez "navarro" izango, "español" hutsa baizik. Alderdi horretakoen praktika nagusia nolakoa den ikusiz, behintzat, dudarik ez dut egiten horretaz. Zuek egiten al duzue?

J.R. Etxebarria



PROSTITUTA GAUEZ



"Nik ez dut aurkitu benetako putatik nire lanean-diosku gizarte honek putatzat hartzen duen neska—, baizik eta-jarraitzen du—, baizik eta, gizon konkretu baten azpian bizi diren andreen artean; hau da, beren burua mantentzeko senarraren soldataz baliatzen direnak, gizonaren albo eta etxeko lekua ezkontza dela bide aurkitzen dutenak, alegia".

Zuriz jantzirik aurkitzen dugu beste hiru lan-kideren alboan, eserita. Zigarroa esku batean eta azalpenak ematen ari dela. Ederra: "Hauxe da gure errelaxa" —dio mintzagaiari buruz galdetzean.

Zerbait ulertezina iruditzen baldin bazaio, andre ezkonduen zerbait jokabide da: "... ongi situaturik bizi diren señora horiek, gizonen aspertu ondoren, adarrak jartzen dizkieten horiek, bai ditugula emagalduek. Senarraren atzetik horrela jokatzeko ezin daiteke inolaz onartu. Gizonak-diosku-ezer bererik ematen ez baldin badizu kitatu eta bizitza berria zabaldu, beste

ainitzek egiten dugun modura, lanen bat aurkitu eta norberaren pertsonaltasuna gorde. Senarraren dirua jaso eta beste norbaitekin oheratu..."

Bizitza eta pertsona bezain zahar den lan-mota honek badu atsekabe asko. Lan-orduak ugariak dira, eta, klienteak arras ezberdinak. Batetik bestera nortasun ezberdinak dira izan eta andre bera da denon jostailu dena. Gela txikitxo batetan sartu, alboan daramatenak zer egin liezaiokeen ez dakitela, hori lana.

"Gure bizitza-mintzo da-oso da arrastratua,... oso. Elkarrizketak, lankideen artean egiten ditugunak, hain zuezen daitezke izan burua argitzeko dugun aukera bakarra. Bakoitzak bereak kontatzen ditu: dirua irabazteko lanaren gogorra, semealaben gorabeherak, senarrarekin izandako arazo latza, klienteen jokaera eta abar".

Kea ahotik irteten zaionez ateratzen zaizkio hitzak ere bai: korapilotsu, multzoka eta nahasian.

Teresa, alterne-taberna horretan ezagutu duguna, Portugaldarra da,

hogeitasei urteko neska, bere gaztelania ama hizkuntzaz maiz nahasten zaiolarik: "Nola diozue hau? —galdetzen du behin eta berriro— Ez, ez da hori..." —eransten dio erantzunari—"... zera, hauxe..."—dio finean.

Bi gizon izan ditu bizitzan. Lehen senargai antzeko zerbait, sano gaizki portatu zena egia esan, gau bizitza honetara bultzatu duen morroia azken finean. Bigarrena senarra. Orain ez dabilta elkarrekin, baina benetako maitasunik izandu dutela nabari nahi dugu Teresaren hitzetan.

"Nik neuk ez dut goserik ezagutu —dio beste gai bati lotuz— Baina nire nebaahizpa nagusiek bai ezagutu dutela". Portugal oso herri txiroa dugula jakina da, eta lana aurkitzea nahiko zaila suertatzen da normalean. Teresaren aitak oso bizitza premiatsua eraman izan du; hara neskaren hitzok: "Gurasoek zuten etxea —dio— aitonarena zen, zaharregia eta berrikuntza beharrean. Behin, gurasoek etxea konpontzea erabagi zutela, dirua eskatu

AMA BIHOTZEZ

egin zen eta enpeinuak zabaldu zitzaizkigun etzekoen artean".

Egoera honetan ezagutzen zuen Teresak bere senargaia. Handik eta denbora gutxi barru, berarekin ihes eginez, etxea utzi zuen, bertan karga bat ez izatearren. Etxekoek behin eta berriz eskatu zioten etxeratzeari. Dena dela, berak ezetza eman zien: "Nik ez nuen karga izaterik nahi —argudiatzen du— eta senargaiarekin jarraitu nuen. Behin telefonoz deitu nien ez nintzela haiengatatuko esateko. Etxekoek gauzak nola zuen ikustean, Ameriketarako bidetara hartu zuten. Nik hamazortzi urte besterik ez nuen" —dio.

Senargaia utzi ondoren, gauzak ez baitziren ongi egiten, "barra amerikana" batetan aritu zen lanean, geroxeago senartzat hartuko zuen gizona ezagutu zuen. Ezkontzaren fruituz alaba bat jaio zen eta gaur lau urte dituela argitzen digu, amaharrotasuna erakutsiz. Oraingo honetan ere gauzak ez doaz ongi haien artean eta hiru urtegarrenean ezkontideek banatzea erabagi zuten: "Bera oso jokozalea zen-min-

tzo da Teresa-eta hori-darraio- ez da izan inoiz nire gustukoa. Hitz egin ondoren, bakoitzak bere bizitza beteko zuela erabagi genuen. Ez dut jokoa maitatzen; horregatik utzi genuen elkar".

"Ezkontza apurto genuenean, senarrak nahi zuen alabaz arduratu eta asko sufritu nuela esan behar dizut. Ni oso gaizki jarri nintzen. Azkenean aitak baimena eman zidan haurraz arduratzeko". Gaur egun Teresa umearen arduradun baldin bada, hura, hots, neskatila, Portugaletik aterata nahi izanez gero, haurraren aitari azaldu behar dio, Teresak, berak, duen pasaportean alabaren izena agertu arren.

Amak ez du gogorik alaba bakkirik uzteko, hau behin eta berrito entzuten dioguna da. Ahalik eta gehien joaten da neskatoa ikustera. Berak dioskunez, hilerio joaten omen da zazpi zortzi egun alabarekin ematera: "Alabarekin bizi nahi nuke, asko sufritzen dut harengandik urruntzean" —dio. Orain, gurasoak Ameriketara bizi direnez geroztik, ahizpa eta koinatuak duten

etxean uzten du haurra. "Nere alabatxoari —entzuten diogu— egia esan, ez zaio ezer falta; behar bada gehiegi mimatzen dugu ahizpa, koinatu eta hirurek. Baina ez dut nahi berari ezer faltatzerik. Bizitza alai eta gozoa izan dezala nahi nuke".

"Egunen batetan —jarraitzen du bere alabatxoaz—, haziko dadinean, urteotan izan dudana gau-bizitza kontatuko diot; orain ezin dut, ez luke ulertuko eta". Sarri mintzatzeko da haurrarekin telefonoz, bera baita —amaren hitzetan— bizitzan maiteen duena. Gurasoak ere oso maiteak ditu, baina alabaren aurrean ez dute aukerarik, egia esan.

"Nere gurasoek —dio Teresak— ez dakite zer nolako bizitza bizi dudana, jakingo balute hilko liriteke agian. Haien ustea nire senarrarekin bizi naizela da eta sarri idazten didate Ameriketatik Portugalera haiekin bizitzera joan gaitezen". Hala eta guztiz ere, Teresa ez da ausartzen egia kontatzera eta jartzeko argudioa zera da: senarrak ez duela oso atsegin bidaiaren asmoa eta oraingo Portugalen geldituko direla esaten die. "Gurasoen asmoa denak han batzea da, azken finean, han denontzako lana omen dago eta".

Lanaren gogorraz jabetzeko egunean hamar-hamaika ordutako lana egiten duela esan beharra dago, arratsaldeko lau edo bostetatik gauerdiko ordu biak arte, gutxi gora behera.

Klienteek emandako dirua andreentzat da osorik eta hilean 300.000 pezeta ateratzen omen dituzte gurek, baina badira, berak dioskunez, berrogeitamarretik pasatzen ez direnak eta, osteria, milioi erdia eskuratzen dutenak ere "Irabaztean gorabeherak dira gure artean, gehien aterata behar dugunak ezkonduak edo semealabadunak izaten gara eta ia-ia denetara prestatu behar, gure buruan kaltegarri dena jakin arren. Gazteenek, aldiz, edo haien gainetik gizonik ez dutenek gutxi xeago lanegiten dute, diru gutxiago eskuratuz, noski, baina lasaigo biziz ere bai".

Teresak nahiz eta nahiko ongi irabazi, gastu handiak izaten ditu



hilean zehar. Pentsa dezagun: alaba mantendu beharra, hileroko bidaia Portugalera hura ikustera, patxadaz

— "Gure bizitza oso da arrastratua, ... oso. Elkarrizketak daitetzke izan burua argitzeko dugun aukera bakarra. Bakoitzak bereak kontatzen ditu: dirua irabazteko lanaren gogorra, semealaben gorabeherak, senarrarekin izandako arazo latza, klienteen jokaera eta albar".

jantzi beharra... "baina alaba dut hondamena, erregalu gehiegi ematen diot..., gehiegi agian..., baina hain maite dut! Ni gurasoekin-jarraitzen du azalpenak-zoriontsu izan naiz, bihotzez maitatzeaz gainera nire deboziokoak ditut. Baina..., ba al dakizu dudan alabatxo gozo hori edukitzea zer ote den!"

Alaba du bihotz: "Ez nago pozik lan honetan, hementxe nautzue, baina ez dut gogokoa; beharrianak bultzatu nau honetara".

Elkarrizketak aurrera jarraitzen du. Taberna utzi dugu eta haren gainean dagoen hotelera abiatzen gara eskailera ilun xamartxoak zapalduz. Umemokoak agertzen dira

— "Gurasoek zuten etxea aitonaarena zen, zaharregia eta berrikuntza beharrean. Behin gurasoek etxea konpontzea erabagi zutela, dirua eskatu egin zen eta enpeinuak zabaldu zitzaizkigun etxekoen artean".

deskantsilo batetan, agurrik ez baina eskua luzatzen dute hirurek dirua eskatzeko. Hotelean, sartzeaz batera, kutxa erregistradorea aurkitzen duzu aurrez aurre. "Karneta eta hirurehun pezeta" eskatzen ditu atezainak. "Zein hartuko du-

zu?", galdetzen dio berriz Teresari mahai gainean dauden esprai eta tubo ezberdinak erakutsiz.

Ez da oso gela handia, ez dago aparteko haltzaririk: ohea, lababoa eta bideta, den dena gela berean.

Teresaren ustez, beste hiru edo lau urte gelditzen zaizkio lan honetan jarraitzeko, "gorputzak ezin luke gehiagorik jasan" —dio. Hogeitalau urtez hasi zen eta urte bi iragan eta gero gogorregia egiten zaio jarraitzea. Urteak joanala, pozago aurkitzen du bere burua, erretiratzea hurbilako antzematen baitu.

Egunen batetan, etxetxo eta negozioeren bat lortu ahal izango duenean, profesioa ahantziko du, baztertu eta buruko ahaztu ezinezko jirabira astun gogorrek kanporatuko. "Egunerokoa nahiko gogor da

gogoratzeko. Gure asmorik indartsuena arazoak gureganditzea da. Oso bizitza arrastratua denez gero, eguneroko trastornoa txokoratu nahi dugu".

Andreen artean izaten diren elkarrizketatxoetan iragana birreskura-

tzea da lana: gaztaroa, haurtzaroa... aldi onak. "Nik hamazortzi urtekin utzi nuen etxea senargaia zela eta. Orduarte eskolan aritu nintzen lehen hamabi urtetan, gero, etxeko gauzak egiten eta hola".

Argiak zuri eta gorri, aukeratzeko.

Honaino heldu eta gero, lanaz mintzatzen gara. Sarriegi jazotzen bide da, klientea neskaz probetxatzea, asko dira gehiegi eskatzeko prest daudenak, zenbait, andreak joteko ere bai. Berari, Teresari, berak azaltzen digunez behintzat, ez zaio horrelakorik tokatu, baina sarri entzun ditu horrelako kasuak lagunengandik.

Behin eta berriz erreplikitzen du gauza bera: "oso bizitza arrastratua bizi dugu". Gau-andreen artean maiz ematen omen da alkohola eta porroa helburu terapeutikotzat erabiltzea. Bi haburu ezberdin betetzeko erabiltzen dituzte; batzutan lanean eginikoa nolabait ahanzteko, beste askotan, aldiz, lanean hasteko, hots, klienteengana hurbiltzeko behar den kemena eskuratzeko. "Jendea maiz drogatzten da-ari da Teresa-inor ez baita harrizkoa, eta, den denok baitugu sentimenturik".

Gizonekin harremanetan hasteko, badira era ezberdinak, noiztear behin haiek deitzen dituzte neskak, batzutan azken hauek dira klienteari hurbiltzen zaizkionak, baina egia esan, andreok badakite zeinek nahi duen oheratzea eta zeinek ardoa dastatu. "Psikologia puxkatu eduki behar dugu, tabernan dagoen jende piloaren artean, nortzuk duten asmo hau edo bestea antzemateko, nortzu datozen andretan eta nortzu ez nabaritzeko".

Lanaren zati handi bat ohean ematen du Teresak, oheratzeak zenbait sentipen erakartzen dio: "hau ebitatu ezin daitekeen zerbait da"—dio. Oheratzean burua martxan jartzen zaio, gelatik irtetea nahi izaten du eta imajinazioa Portugalera doakio. Alaba izaten du gehien bat buruan, larrua jotzerakoan. Alaba eta dirua, dirua eta alaba, alabarentzat batzen duen dirua.

"Badira, klienteen artean, xera

ematen dutenak. Zenbait kasutan gogoz hartzen duzu eskeintza hori, baina beste betzutan txarrago izaten da horrelako tipoak ohean edukitzea, zenbait kasutan deuseztu egiten zaizu moralala eta". Ez dira, zoritxarrez, denak gozotasuna emateko prest agertzen, asko baitira txulo gisara azaltzen direnak eta hauek nahiko trebeak dira pertsonak mintzeko, berez sentitzen den barnemina handitzeko.

Nerbioak beti dantzan. "Alai eman behar duzu nahi eta nahi ez. Jende guztia aguantatu behar duzu, eta, sano finjitu". Bizitza tankera hau ez du jendeak edonola hartzen. Zerbaitek bultzatzen du neska tabernara, beharizanen batek eramaten du pertsona horretara: goseak edo eta maitasun ezak.

"Ameriketara, beste lan fixuren bat aurkituko banu, berehalaxe hartuko nuke alaba gurasoengana joateko, senarrak eta biok elkar

— "Nere gurasoek ez dakite zer nolako bizitza bizi dudan, jakingo balute hilko lirateke agian. Haien ustea nire senarrek bizi naizela da eta sarri idazten didate Ameriketatik Portugalera haiekin bizitzera joan gaitezen".

utzi dugula azalduko nien eta bizitza arrastratu hau hortikan utzi".

Berak dioen "bizitza arrastratu" hau Portugalen hasi baldin bazuen, Estatu Espainolean finkatu du sakon. Lehenengoz Huelva-n aritu zen, orain osterara, Bilbon dabil gau-bizitzan. Ez du gehiegi ezagutzen Euskal Herria. Gehien bat Donostia: "oso ikuspegi ederrak ditu, Bilbao baino gehixeago atsegina dut Donostiako tankera"—dio. Noizean behin Probintziara abiatzen da pasaporte arazoak konpontzeko. Bilbon ere, ezagutzen bide du zenbait zinema eta dantzaleku, hauexetan ematen baitu, zenbait aldiz, bere aldi librean. Ikusi duen azken filma mafiari buruzko bat izan zen, Multicines horietan, alegia.

"Ez dut ongiegi ezagutzen Espainiako legea —dio beste gai bati eutsiz—, baina gauza bi argi eta garbi ditut buruan: kanpotarrek ezin dugula lanik egin bata, eta bestea, nahiz eta lan arruntetarako debekua

ukan, prostituziorako atea zabal-zabal ditugu. Ez diot legala denik, baina ez da zabalean pertsegitzen, gure kasuan, esate baterako, lagundua dela esango nuke, erraztasunak ematen dizkigute honelako lanean aritzeko" —ateratzen zaio.

Prostituzioan ari direnen artean bada gaixotasun-mota ezaguna, denen ahoetan agertzen diren sexu-gaitz ezberdinak hain zuzen. Nesken lanean guztiz arriskutsuak izaten dira, lana galtzeko atea baita: "Horrelako gaixotasunen bat hartzen duen neskak argi beza lana galdua duena, eta ez bakarrik lana, bizitza galtzeko aukera ere baitago". Maiz zabaldu da prostituten artean klienteren batek silfilidun neskaren bat hiltzeko gogoan agertu duela, horrelako gaixotasunik etxera eramaterik nahi ez duelako. "Honelako kasuren bat ematen baldin bada —dio Teresak goikoari jarraituz—, hobe dugu herriz aldatzea, bizirik jarraitu nahi izanez gero".

Hamabostero osagilearengana joatea derrigorrezkoa ikusten du Teresak, moralki derrigorrezkoa.




Egokia dakus sarritasunez analisiak eta bakunak hartzea, aipaturiko kasuak nolabait ganditzeko. Aseguru Sozialean ez dute sarrerraik, baina mediku partikularrengana joaten dira lanok betetzeko. "Ni sarritan joaten naiz-dio-eta ez dut inoiz oztoporik aurkitu horrelako errebi-sioak egiteko. Osagile partikularretan, noski, Aseguru Sozialean egiterik ez baitugu".

Errespetua lortzea litzateke, bestalde, arazorik handiena prostituziolan honetan ari diren neskengan. Lanetik at ez dute nahi jendea haiekin sartzea, ez dute nahi puta hitzik albotik entzutea, errespetua nahi dute munduko pertsonak nahi duten bezalaxe. Errespetua lanean eta handik kanpo.

Argietan fijatzen naiz: zuria berba egiteko, gorria oheratzeko. Eskilara zaharrera jotzen dugu berriro, atean karneta bihurtzen didate, hurrengorarte entzun dut nire lepoan. Oraingokoan ume mokoek ez didate dirurik eskatu. "Agur". Teresa tabernara abiatzen da. Kanpoan eurria, tabernan kea eta zarata handia.

J.I. Basterretxea





Batzuren ustez, berandu bagabiltza ere, guk, ordea, ez dugu hori uste eta Gabonetako Presoen alde burutu den kanpainaren ondoan gure presoek mintzatzeko aukera zabaldu nahi dugu. Oraingoko honetan "Euskal Herriko apaizen pastoral ekintzaren Bateratze" taldekoak ditugu gure orrialdeetan.

Hona hemen haiek ateratako bi artikulu: "Preso Nengoelarik" izenekoa eta bestea hainbat elizatan irakurritako hitzaldia edo semoia.

PRESO NENGOELARIK ...

Une honetan ugariak, erabakikorrak eta korapilotuak dira gure arduratsuen duten arazoak. Hauekako sentiberago bilakatzen ditza gure gizartea. Dena den, maiz altxatzen dira horik salatzeko edo horietaz eritzi bat emateko mintzoak. Gaur egun arazo larri batetaz mintzatzeko ezinbesteko premia bat dugu sentitzen, zoritxarrez gure artean ez baitu behar hainbateko oihartzunik ezta berari dagokion planteamendu kritikorik ere. Bereziki larria eta negargarria ere den egoera batetaz dihardugu; gure presondegi eta presoek alegia.

Gizarteko behartsu, baztertu, zarpatu eta erreprimituak direnekin kidatzea hertsiki bultzatzen gaituen kristau sinesmena dugu ahotan hitza ipintzen diguna.

EGUNGO EGOERA

Azken urteotan izugarri gehitu dira bahiketak, zernahi oben (?) kausa delarik. Gure gizartean polizia eranginkor baten garaipen ezaugarri

PRESOAK ETA GABONAK

Adiskideok: Gure herriak beti elkartu ohi ditu Gabonetako egun maitatsuak eta etxetik kanpo direnen itzulera: arrantzaleak, soldaduak emigranteak, atzerritatuak eta presoak. Hator, hator, mutil, etxera. Jaiotxearen berotasunean egun hauetan bilduko diren etxekoen urruntasuna aiazatzen duten guztien itzulera.

Eta gure herriaren sen hain giza-kor hau, baieztaturik aurkitzen dugu Ebanjelioan. Mesias Salbatzailea mundura datorren honetan, haren egitekoa honako hau dela irakurtzen baitugu: "behartsuei berri ona eman, gatibuei askatasuna iaragarri, itsuei

ikusmena hotsegin eta zapalduen askatasuna". Eta Jesusek bere bizitzako zeregina azaltzean eta Jainko Aitak zertarako bidali duen adieraztean, harritu egiten gaitu bere zeregin salbatzailea presoak askatzea dela bi aldiz azpimarratzean.

Ez genuen uste, bada, betiko bizitzan eta eremu espiritualean salbatzera zetorkigula Mesias? Orain, aldiz, haren ebanjelioa ongi irakurtzen baldin badugu, zera nabarri da, hategia, Jesusen erlijioa, ia erabat, orain eta hemen, zapalduen askatasuna gauzatzean eta presoek gaitzetako ateak irekitzean datza-

la; hator, hator, mutil, etxera lehenengo abestu zuena Jesus bera izan balitz bezala. Salbazio idealista faltsuetatik, ezertxo ere ez. Gure Jainkuaren salbazioa ondo materiala da eta erabat gaurkoa: kartzelak ireki, ikusmena itzuli, kateak hautsi. Hau da, bederen, Nazareteko Jesusi entzuten dioguna, zertara datorren, Jainko Aitak zertara bidaltzen duen lau haizeetara aldarrikatzen duenean.

Honelaxe hasten du bere bizitza eta honelaxe amaitzen; gogoratzen duzue, azken juizioan gu epaitzeko erabiliko duen irizpidea hau

bezala agertu izan da hau, inolaz ere eritzi gabe honoko gaitz hauen ezaugarri direla: elkarbizitza arruntki lardaskatua eta gure zenbait lege salbuespenezkoak direlakoena hain zuzen, lege hauek bide ematen baitute berezigabeko eta zuzenkontrako bahiturak "justifika" daitezten.

Bahituak, eta, zer esanik ez, presoak, bakandu beharreko zaborriritzat ez ezik, deuseztu edo, behintzat, ahantzi beharrekotzat aurkeztu ohi dira. Beztuak eta alde bat utziak dira, onargaitz eta terrorismoaren gorasarretzat ere emateraino haietaz arduratzea, haien esku-bide arruntenak aldezkatzeta, haienztzat edo haien etxeoentzat laguntza eskatzeta hain egoera estu eta premiatsuan. Bahitua edo preso hartua izateak hari edozer egiteko aukera emango bait ligu.

Bahitua izan den une beratik egoera astun baten pean ezarria da: abokatuaren aurkeztu ezina, 72 ordu baino areago baitur-egunak luzatzea, "habeas corpus" deritzan esku-bideaz epaileek egitez ez baliatzea. Terrorismoaren eta Talde Armaturen kontrako legeak aplikatzeko zernolako erizpideak darabiltzaten eta erizpide horik nork juzkatzen dituen ez jakitea..., guzti honek errealitateak tamalez agiaztatzen dituen irain, tratu-txar edo tortura



mota guztitarako arriskuan ezartzen ditu bahituak.

Guzti hau ere larriagotzen da etengabe eginiko salakizunak hutsaren hurrengo gehienetan geratu omén direnean, bidegabekeria hauen zuzeneko egileak eta egoera hauen erantzule nagusiak zigortzeke utziz. Oraindik larriagoa da halako jokatibideak defentsarako justifikagarri bait liran agertu nahi izatea gizarte-ari, eta gezurti eta iraingarritzat ere jartzea salatu dituzten haiek.

Deigarra ere da presondegietako barne egoera: "goi segurantza"-ren izenean hainbatez aipaturiko gartzelen erreformak ez damaigu denok behar dugu iduri zuzena, barne neurri astunegiak direla bide, sorterritik urrun diren lekutara aldatzeak, neurrigabeki pilatzeak, nahikeriazkoak, makurrak eta anti-iuridikoak ere diren zigor eta neurriak (zigor geletan eta bizitz-araudi mixto pean iragan beharreko egunak), erregimen zaharreko funtzionarien jarraipena "lehengo erako" jokaerarekin. Bahituekin etxeoek eta abokatuak dituzten harremanak askotan oso zailak, nekosoak eta makurrak bihurtzen dira. Haietako askoren auzi—eta iuridik—egoera ez-ohizkoa ez ezik zuzenkontrakoa da argi eta garbi. Egoera honen aurrean preso-en jokaera ere azken-azkenekoa

izanen baita, hain zuzen: Zatozte, nire Aitaren bedeinkatuok, gose eta egarri bait nintzen, eta zuek jaten eta edaten eman zenidaten; espetxean nengoen, eta Niregana etorri zineten edo askatu egin ninduzuen", hizkera biblikoan berdintsua baita. Hasi zuen bezala amaitzen du Jesusek bere bizitza, entzun nahi dionari zera gogoraziz, hots, bere ebanjelioa berri ona esklaboak askatzekoa eta kateak haustekoa dela. Honelakutxea da gure Jainkoa eta Salbatzailea: gaurkotasunez betea, uso materialista, lur gainean eta errealitate gizatiarretan finkatua, gure aldiko gizon kateatuaren duin den Jainkoa eta aldi ororen duin dena.

Eta zergatik izango ote da Jesusek behin eta berriz errepikatzea preso eta baztertuak baraien loturetatik askatzea? Dudarik gabe, Nazareteko Jesusek, bere herrian erroiturik, judu-

tar herriaren oinazeak aragi bizian sufritzen zituanak —Pablok dioskunez, "beste edozeinen antzera bizi izan bait zen— gehien sufritzen zuenaren adina sufritzen zuen armada arrotz baten menpe bere nazioak pairatzen zuen okupazioa eta zapalkuntza. Ongi informaturik zegoen Jesus, inbaditzaile erromatarren kontra burrukatzen zuten aberdidez beterik zeudela Jeerusalengo presondegiak, eta, badakigu, bere apostolueteriko batzu (Pedro eta Judas, adibidez) gerrilero ziren "zelotas" —en tartetik— erromatarrek bandolero eta terrorista deituko zituzkeen hautatu zituela; inbaditzaileari aurpegi ematen ziotenak eta enbuskada eta atentatuen bidez beraien lur maitearen okupazio-indarren kontra burrukatzen zutenak.

Izan ere, Jesusek ba daki espetxea domiatzaileen asmakari (inbentu)

krudela dela eta ba daki, espetxe horietan, tortura, eguneroko ogia dela, eta ba daki, egun batez, bera ere indar inbaditzaile horietan detentatu eta torturatu egingo dutela, eta horixe bera gertatuko zaiela esaten diete bere jarraitzaileei. Jesusek ba daki tormentu eta presondegi horiek herri zapalduaren egoeraren ezaugarri gordinena direla eta zapaltzaileek beraietan sartzen dituztela dominazioa asmoen aurka ari diren guztiak. Eta horrexegatik daki gartzela horiek irekitzean, askatasun eta justiziazko erreinu berria hasten dela. Morrontza oren salbatzaile gisa datorkigu Bera, eta horrexegatik bere bizitzako unerik gorenetan bere xeden askatzailea adieraztean, esan eta berresan eta gonbidatu egiten ditu bere jarraitzaileak kate guztiak apurtzera eta presondegi guztiak irekitzera. Hauxe da bere ebanjelioa berri ona,

da —hil arteinoko gose-greba!— erabateko axolakabezia, estenkadak ez direnean, ematen delarik aldi berean zenbait antolamendu, erakunde eta gizarte beraren aldetik.

Guzti honek behartzen gaitu mintzatzera eta axolakabe ez gelditzera. Hiritar libre garenon kontzientziak garamatza zuzengabeko egoera hau ustiatu eta gaitzestera, egoera hau denez, gainera, egonezin politikoa-ren eta guztiontzat ondorio larriegien eta ustegabekoen sortzaile atargabea.

GURE SINISMENGANDIKO ARGIA

Jesusen jarrerak eta Profeten amasak, Biblian zehar jasoak, eragiten gaituzte ere, kristau, garenez, gertaera negargarri hau kontutan hartzera eta kemen handienaz salatzaera.

Sinestun garenez, ba dakigu ahulaz babesteko dela legea, ez klase domeinatzaileek ezarritako "ordenua" zaintzeko. Ez dago, besterik gabe, legetasuna eta zuzentasuna berdintzerik, ona eta txarra erabakiz legea betetzen den ala ez den neurrian.

Jesuz bera "legez" izan zen erahila. Haren hitzak garamatza inor uztera ez baina ezergabeak, baztertuak, eta erreprimituak batipat haintzat hartzera, direnak direla hauen egoera kolokariaren arrazoiak.

Jesusek, gizartetik eta legetik baztertutako orengana hurbilduz gain, eta erabateko ebanjelizapen mesianikoaren seinale bezala behartu horik onbideratuz gain, presoan askapena agertzen du Erreinua iritxi denaren froga gisan. "Behartsuei Berri Ona hots egitera igorri nau, presoan askapena aldarrikatzera, eta itsuei ikusmena ematera, zapalduen askatasuna ekartzera eta amnistia oihukatzaera" (LK. 4, 18-19). Beste pasarte batetan nagusi eta behin betikoa, San Mateoren 25, kapituluari aurkitzen dugu, Erreinura sartzeko behar diren baldintzak eta eskakizunak ezartzean: "Gartzelan nengoen eta ez zineten ni ikustera etorri... Ene senide txiki hauetako bati egin zenutena niri egin zenidaten" (Mt. 25, 34 o.).

Bibliak erakusten digu ere nola baliatzen den ahaldua zuzenbideko erakunde beraietaz, bere arazoa behartsuen eskubidean gaindi aurrera atera dadin. Baina Jainkoari auzia gizonena ezbehalakoa da eta behartsuaren arazoa hankapetua de-

nean, Jainkoa gertatzen da haren defendatzaile (ikus Mikea, 3, 9-12; Esaera Zaharrak, 22, 22-23 eta 23, 10-11; Amos, 5, 12 eta 8, 6; Jer. 22, 13-19; Is. 42, 6-7 eta 49, 8-9).

Fede ikuspegitik, Jainko Erreinu-
ra hurbiltzen duen eta zuzentasu-
nean eta askatasunean egiazko has-
kundera dakarren urrate historiko-
orok, presoak eta gartzelatuak urri-
tzea eskatzen du.

GIZARTEA PRESOEN ETA PRESONDEGIKO EGOERAREN AURREAN

Presoak ez dira gure gizartetik eten beharreko gorpuzki gaixoak. Gaixotasun larrian dagoen gizartearen ezaugarri baizik: batzutan gure erruen eta gure bidegabekeriaren istilu itsusi badira ere halako ezaugarriak, bestetan asalatu egiten gaituzten eta gizarte zuzenago bat bilatzen laguntzen diguten "sendagai minberatsuak" izan ere daitezke. Gizartea zenbat eta zuzenago, hainbat eta preso gutiago. Baldin hauek gehitzen badira,... zerbait funtsezkoa ez dabil ongi.

Neurri batean nahiz bestean denok gara dagoen legediaren erantzule, boterean den alderdi politikotik hu-

eta hauxe da bere erreinuaren etorreraren ezaugarria.

Eta guk, Haren jarraitzaile izan nahi baldin badugu, egun hauetan inoiz baino gehiago, bere herriari osasun osoa eta munduan gaizki dagoena ongi jartzera datorkigun jaioparriaren-garia hurbiltzen garen egun hauetan, berezkoa da eta izan behar du gure sentipen eta konpromisoa, gure Jaunaren zeregina geure zeregintzat hartzeko. Har dezagun, bada, Hark bezala, lehen zeregintzat: zapalduak askatzea, ez —ikusit eta ez— jakin egin nahi duten itsuen begiak zabaltzea, loturak hautsi eta presondegiak irekitzea. Hator, mutil, etxera Jesusen egitekoa da eta gure egitekoa ere bai, gustatu ala ez. Edo D. Quijotek esaten zuenez: "Askatasuna, Sancho adiskide, dokatu behar da bizitza". Eta gu, Quijoteak izateaz gain, kristauak gara. Gustatu ahal zaizkigu ala

ez, ados egon gintezke ala ez, gure herriko gaurko "zelotas-en" burrukabideekin, baina ez gintezke bat etorri-ez ebanjelioarekin eta Jesusen egitekoarekin, zein bere gisa eta modura, noski, Haren jarraitzaile izan nahi baldin badugu.

Ze ongi ulertu zuen guztiau, Ecuador-eko Riobambako Gotzaiak, poliziak, orain dela gutti, bere etxea inbaditu eta goiko behera jarri zuenean paper konprometigarriak bilatzeko ustez eta atxilotuta eraman zutenean. Poliziei aurpegi eman eta zera esan zien: Baina jaunak, etxean dudana paperik konprometigarriena ez duzue hartu. Zein da, bada? Ebanjelioa, jaunak; horixe da nik dudana liburririk subertsiboena eta konprometituena, liburu horretan hain zuzen ere Jesusek gonbidatzen bait nau ordena injustua aldatzera eta neure herria zapalkuntza guztietatik

askatzera "handikiak beren aulkietatik hotsa eta ezerezak jasoz". Eta horrelaxe ulertu zuen Ebanjelioa apostoluak garai hartako kornisaldegietara eraman zituztenean eta torturatu eta, azkenez, erahil zituztenean, subertsibo gisa akusatuz eta ordena eta legearen arario bezala salatuz. Hauxe da, adiskideok, gure Ebanjelioa, eta ulertu nahi duenak uler beza. Eta norberak Jesusi erantzun diezaiola, zeren, gogora dezagun, Juizio egunean zera galdetuko digula Epaiari gorenak: Gose nirtzen eta jaten eman zenidaten ala ez, gaixorik nengoen eta ikustera etorri zineten ala ez, preso nengoer eta askatu ninduzuen ala bertan behera utzi ninduzuen? Besteie egina neroni egiten didazue.

Eta ez-genuke amaitu nahi hitzaldi hau, aurreko guztiarekin oso loturik dagoen gai latz bat ukitu gabe,

ra baiezen lagundu zuten alderdie-
tara, errotik haren aurka jarri ez zi-
renak barne erakunde iuridiko, poli-
tiko, sozial eta erlijiosoak eta lane-
giten ez duten hiritar guztiak gaur
egun lege zuzenak erdiesteko, egiaz
defenda dezaten babeagabea, eta
une honetan, bahitua eta gartzela-
tua.

Lan asko egin behar dugu denok
zuzenbide gehiago izan dadin egiaz
bahituen eta presoan arloan. Pairs-
tzen duten zuzengabearen eta egoera
zabarraren aurrean, hil arteino haiek
egin grose grebak erantzukizun eta
erradikaltasun handienetako ekin-
tzak dira. Ez dira buruhiltzaileak,
zenbait sail politikok eta erlijiosok
azaldu nahi izan duten bezala. In-
justiziari eutsiz heriotzera daramatza-
tenen aurrean, haien jokabidea, aldiz,
gisa-hilketaren salakizun da eta egun
batez zuzenbide gehiago iritsiko de-
naren iragarpen ere bada beste pre-
soentzat, horretarako zenbaitek be-
ren bizia eskaini beharko duten
arren.

Haien etxekoak, batzutan erruki
diegunak eta gehienetan adikortasun
eta axolagabe eta etsaikeriaz hartu
ditugunak beren salakizunen eta mu-
gi aldien aurrean, haietzek izan ohi
ditugu atengabeko akusazio eta sufri-
tzen dutenen garrasia entzunerazte-
ko ezten.

beste behin ere aireatu eta salatu be-
harrekoa. Torturen gaia, hain zuzen..
Ba dira koldar eta zinikoak arlo honi
garrantzia kendu nahiko liezaiokete-
nak. Baina, adiskideok, gauza bat da
denok nahi genukeela gure herriko
arazoak bihurtzea eta heriotzarik ga-
be konpontzea; bihotzez nahi dugun
zerbait da izan ere, inork ez ditzala
indarrezko bideak erabili, armak di-
tuztenetatik eta beraien pribilegioen
defendatzaile eta jendarmeak hortze-
taraino armatzen dituztenetatik hasi-
ta, noski...; baina errealtatea beste
gauza bat da esta beste gauza bat bai-
ta ere Jesusek agintzen diguna, Aita
Santu eta azken kontzilio Vatikanoa-
ren ahoz.

Guk, gaur, ezin dezakegu ixildu,
bereizgabe, neurrigabeko eta eskubi-
de ororen bortxatzaile diren deten-
tzioren arazoa eta torturen arazoa,
guztiok dakigunez, gure artekoa bai-



PRESOEK GAITUZTE EBANJELIZATZEN ETA AMNISTIARA HURBILTZEN

Ez ditzakegu gure gogoeta hauk
buka, eskandalagarri (Jesusan Berri
Ona eskandalagarri den bezala!)
gerta dakizkigukun bi alderdi aipa-
zteke:

ta. (ixiltzea edo oso komodua edo
oso lotsagabea litzateke. Baina, guzti
honetaz, Paulo VI.ak agintzen diguna
gogoraztea aski da, zera dioskunean:
"Torturak, hau da, detentiuengandik
nahi diren aitorkuntzak indarrez ater-
ratzeko erabiltzen diren metodo poli-
ziazal krudel eta ezigizakorrak erabat
kondenatuak izan behar dute. Eta sa-
latu egin behar dira, pertsonaren
duintasunarentzat iraina baitira".

Eta esana zuen, lehenago Vaticano
II. Kontzilioak (Gaudium et Spes
rr. eta 26. zenb.) zera exijitzen due-
nean: "pertsonen osotasuna bortxa-
tzen duen oro, hala nola, mutila-
zioak tortura fisiko eta moralak, bes-
teen burua meneratzeko saioak, be-
rez, giza zibilizazioa oinperatzen du-
te, borrareruak biktimak baino areago
desohoratzen dituzte eta Egileari sor-
zaion ohoreari erabat kontrakoak
zaizkio".


Presoak eta hauen egoerak, hauen
problemek guztioi dihardar egin ez
ezik ebanjelizatu ere egiten gai-
tuzte. Kristau ikusmiratik, presoan
errealitateak eta hauen egoerak ikus
eta uler arazten digute askatuak
izatea dela hain zuzen haiekiko zu-
zentasuna, Jainkoaren zuzentasuna.
Eta hau da presoak isilka oihuka-
tzen dutena: bai asko falta zaigula
oraindik gure artean Jainko Errei-
nua egia bihur dadin. Zeren eta
ikus berri dugu, Erreinuaren, garai
mesianikoen seinalestariko bat pre-
soen uztaiak apurtzean datzala eta
presondégietako sarrailak irekitzean.
Horregatik, presoan askapena bitar-
teko da lotzen gaituen gizartea
askatzeko.

Behar beharrezkoa da, beraz, am-
nistia etengabe bat, presoan eta
hauen errepresioaren problema sor-
tzen duten arazo sozial eta politi-
koei aurre ematen hasi beharko
den amnistia bat. Amnistia horren
alderdi funtsezkoa eta aurrenekoa
lege errepresiboak esabatzea da. Hau
aldekatzen duena Ebanjelio biderik
onenean dabil. "Amnistiaren" ga-
rrasi hau entzuten ez duena, berriz,
ziur egon daiteke Jainkoaren deiha-
darra ez duenik entzuten.

EUSKAL HERRIKO APAIZ
BATERATZAILEA

Adiskideok, ez genuke demagojia-
rik egin nahi, beraien senideak, gaur,
hemen eta orain, detentiuak, tortu-
ratuak, doñortuak eta zanpatuak di-
rela dakiten guraso, senar naiz emaz-
te edo adiskideak gogoratzeari. Sinis-
tedun bezala, Aita Santuaren orien-
tabideak jarraitu nahi genituzke eta
beste behin, salatu, zapuztu, konde-
natu eta madarikatu egiten ditugu,
ororen gainetik eta entzunak izan
nahiz ez izan, gisa horretako egune-
roko praktikak eta errealtateak, piz-
tientzako egokiagoak gizonentzako
baino. Entzun nahi duenak, entzun
beza eta erantzun nahi duenak eran-
tzun diezaiola Kontzilioari, Aita San-
tuari eta norberaren kontzientziari.

YANQUIAK EL SALVADOR-EN



Umeentzat ertozik ibiltzea ona da. Honela errezago lor ditzakete planetak emandako jario onuragarriak, lurraren dardarak,... Landa-reek eta animaliek ez dute zapatarik erabiltzen... 'Biologoek 5 zentzu bakarrik aurkitu dituzte. Baina egia esan 10 dira. gosetea, egarria, umegintza, txisa eta kaka egitea. Hauexek dira biologoen zerrendan aipatzen ez diren zentzuak... Era-hilketa haundiagoa da inhurri bat hiltzea gizon bat hiltzea baino, zeren gizon bat hiltzen denean birgizondu edo errenkarnatzen da. Inhurri bat hiltzen denean betirako izaten da''.

(Mahimiliano Hernandez Martinez diktadoreak esandako hitzak)



1980.eko Abenduak 3: Juan Plutarco Domínguez juezarengana nekazari batzu heltzen dira lau gorpu aurkitu zituztelarik esanez. Plutarco Domínguez Zacatecoluca herriko jueza zen eta berehala abiatu zen gorpuak zeuden tokiruntz. Heldu zenerako Goardia Nazionalekoek prest zeukaten 1,80 metroko hilobi bat. Gorpuak ezagutzea ez litzateke zaila izango baina polizia aurrean ez zuen beste irtenbiderik. : ezezagunak zirelakoan izenpetu zituen hil agiriak.

Gorpuak lau monjarenak ziren, lpar Ameriketako lau emakume misiolariarenak. Lau egun geroago Robert White EEBBetako enbajadorearengana heldu zen berria. Hau lasterren Zacatecoluca-rako bidea jartu zuten". Ez naiz leloa eta ba dakit hala-ko hilobi bat egiteko denbora luze behar dena. Oraingoan ez dituzte berenak egingo". Misoliari hauek aideportura zihoazelarik Goardia Nazionalako kontrol batetan ikusi zituzten azken aldiz. Ordu batzu gerotsuago

goardiek hilobia prest zeukaten. Gauzak ezin argiago.

Washingtonen Carter jaunak El Salvadorreko junta militarri ematen zuen laguntza geldiarazi egiten du eta talde ikertzaile bat bidali. Talde honen buru William BOWDLER, Interamerikako Arazoetarako Estatu Idazkaria zena. Abenduaren 7an junta militarreko 4 kidekin elkartzen da eta egun berean Domínguez jueza sekuestratua izan zen. Hurrengo egu-

nean, 8an, Bowdler-ek ikerketa sakon bat prometatzen du. Domínguez, egun berean ere, hilik agertuko da bala bat buruan eta burua ebakirik. "Buru bat ezin kulpatu menpeko batek egindakoaz... Inork frogarik balu azal ditzala. Bestela ez dezala gezurrik bota" esan zuen Duarte lehendakariak.

Baina hitzak hitzak dira, haizeak parrez daramazkitenak eta Bowdlerrek ez zuen ikerketaren erresultadorik behar. Ez zuen nahi erresultadorik, ez zuen nahi ikerketa egite-rik. Sei aste barru Carterrek berriro eskeini zion bere laguntza junta militarri.

Dena dela Bowdlerren bidaia ez zen alferrekoa izan. El Salvadorreko gobernuaren aldakuntza guztiak beronek superbisatu zituen eta berak ere Majano jenerala junta militarretik botatzea erabaki. Hilabete lehenago Bowdler El Salvadorren izan zen Romero jeneralaren kontrako golpea prestatzen eta lehen junta militarra sortuko erreformista eta erreakzionario batzuren artean. Erreformisten buru Majano.

El año se saldó en El Salvador con la muerte de doce mil campesinos

Cerca de doce mil campesinos (11.723 es la cifra exacta), con edades comprendidas entre los 16 y los 30 años, murieron el pasado año en El Salvador y 229.000 personas —de una población que no supera los cinco millones de habitantes— tuvieron que refu-

El Salvador herriarekiko elkartasun batzordeak Hego Euskal Herrian:

* Iruinea. Apdo. Correos 1112.

* Donostia. Padre Larroca 8. Local de la Asoc. de Vecinos de Gros.

* Bilbo. Lutzana 1-4. Depart. 4. Teléf. 416 61 57.

LEHEN JUNTA MILITARRA.

1979. urtea. Nikaraguan iraultzaileek irabazi eta garaipenaren ohiartzuna mundu guztira zabaltzen da. El Salvadorra ere. Erakunde herritarrak elkartzen hasiak ditugu. Bitartean dirua kanporatzen. Frantzia, Britainia Handia eta Mendebaleko Alemaniak beren enbajadoreak herriratuz errepresioaren aurka protestatzen zuten.

Maiatzean Majanok eta bere tropak eskuinaren golpe bat behera botatzen dute. Golpea D' Aubuisonek-UGB eriotzaren eskoadroikoa —eta honen lagunek nahi zuten eman. Majanok preso hartu eta giltzapean sartu zituen baina handik lasterrera askatuak izango dira.

Romeroren gobernu oso larri da: bil eta azken ahatsa botatzen du: amnistia orokorra, herbesteratuen etxeratzea eta hauteskunde berriak. Baina promesak bakarrik. Herria ez dago txantxetarako eta oposizio osoa Romeroren kontra altxatzen da, bai erreformistak bai iraultzaileak. Ezkerra egunero ari da indartzen eta ofensibara pasatzeko gauza bat bakarrik falta da: Batasuna.

USAk gauzak honela ikusirik Romero aldatzea erabakiko du eta lehen junta militarra ezarri. Lehen juntan gizon hauek zeuden: Majano, erreformisten buru, Jaime Garcia, Jose Gutierrez, Mario Andino, —hirurok USAren adiskideak— Roman Mayorga-Unibertsitate Katoliko errektore eta Guillermo Ungo, azken hau alderdi koalizio batetik. Ipar amerikarrek ipinitako hiru lagunak ezagunak ziren CIArekin izandako harremanak zirelarik.

Junta honek aldakuntza batzuz planteiatzen ditu ekonomi arloan, bankaren nazionalizazioa eta nekazal

berrikuntza, garrantzitsuenak. ORDEN talde parapolizialaren disoluzioa ere baina Majanok berehala berpiztu zuen ejerzitoarekiko erlazioa galdu gabe.

"Hemen benetako boterea gizon batek dauka, Garcia jaunak, Defentsarako eta Seguritate Publikoko Ministroak, berak eta militar buru batzuk" idatzi zuen Enrique Alvarez Cordovak 1980.eko Urtarrilaren 3an bere dimisioa eskatzerakoan. Alvarez Cordova Nekazaritzako ministroa zen lehen junta militarrean eta erreforma batzuz prestatu zituen. Beronek prestatutako erreformak Washingtonen ez ziren onartuak izan, komunistak zirelakoan agian. Alvarez Cordovarekin batera juntako beste gizon bik presentatu zuten dimisioa: Ungok eta Salvador Samayoak, azken hau Heziketa ministroa zena. Samayoak, azken hau Heziketa ministroa zena. Samayoak prentsaurreko bat eman zuen, rifle bat hartu eta indar herritarekin borrokatzera joan zen. Handik hilabete batzutura Ungok eta Cordovak gauza bera egin zuten arma banarekin.

Junta militarra bakar bakarrik geratzen zen eta Bowdler jaunak Bonn eta Madril jo zuen laguntza eska, interbenzio militarra zen bere helburua eta horretarako laguntza behar zuen. Hauek ez zeuden ados. Venezuelak, osterak ez zuen ezetik esan baietza eman ez bazuen ere. Bitartean eskuindarrak ejerzitoaren kontrola lortzen ari dira eta Gutierrezekin biltzen dira kolpea eman nahian, otsailan. Gutierrezek kolpea ez ematearen truke junta militarrean sartzea eskeintzen die. Honela Napoleón Duarte eta Morales Ehrlich sartzen dira juntan. Oraingoan Nekazal Berrikuntza eskuindarrek eratuko dute, horretarako USAK 35 milioi dolar eskeintzen dizkie AID (Nazioarteko Aurrerakuntzarako Agentzia) delakoaren bitartez eta kontsejero batzuz AIFLD erakundearen bidez.

Ezkerra ez zegoen geldi eta lehen junta militarra ezarri zen egun berrean insurrekziara deitzen du "ERP-Ligas Populares 28 de Febrero" taldeak. Handik bi egunetara FPL-BPR taldea ekintzara pasatzen da San Salvadorreko katedrala okupatuz.



NEKAZAL BERRIKUNTZA

El Salvadorrerako Nekazal Berrikuntza edo Erreforma guztiz garrantzitsua da. Herri honek 4 milioitik gorako biztanlegoa dauka eta lurraz 21.000 km². bakarrik, hauek 204 biztanleko dentsitatea ematen digute (Estatu espainolak 73,3 bizt/km²).

Estatu Batuen laguna arlo honetan AIFLD deritzon erakundeak du 1966tik aurrera. Erakunde horiek 1968an Herri Elkartasuna (UCS) sortzen du, mila nekazari baino gehiago erakarriz. Baina erakunde hau gobernuaren gustokoa ez zenez AIFLD expulsatua izango da urte berean. Zergatik? Eskuindarrak ez ziren ipar amerikarrez fidatzen zeren hauek industrializazioari pisu handia ematen baitzioten eta El Salvadorreko eskuina ordura arteko nekazal sistemaren aldekoa zela, industrializazio prozesuaren beldurrez.

Nahiz eta AIFLD expulsatua izan, OCS-ek bizirik iraun zuen —ofizial mailan ere eta bion arteko erlazioak ez ziren inoiz apurtu.

Nikaraguan sandinistek boterea hartu zutenean AIFLD-ek jarraitu zuen El Salvadorreko nekazal berrikuntzaz Alvarez Cordovaren erreforma baztertu ondoren. Berrikuntza 1980eko martxoaren 6an hasi zen, egun bat lehenago adierazpen, prentsa askatasunak, "habeas corpus" eta bilerak egiteko eskubide guztiak desagerturik militarrek ez zuten ino-

lako ostoporik herri osoa okupatzeko. Berrikuntzaren eragilea Roy Posterman ipar amerikarra dugu, Vietnametik etorritako gizona.

Roy Posterman Washington Unibertsitateko katedratikoa, deretxo alorrean, bere burua "UCS eta AIFLD-eko laguntzaile boluntarioztat" jotzen du. Nekazal Berrikuntza martxoaren seian hasten da eta lau izen aipatuko: Roy Posterman; Michael Hammer-AIFLDkoa eriotzara arte; Rodolfo Viera eta Lionel Gomez, biak UCS eta ISTA (Nekazal Berrikuntzarako Institutoa) erakundeen buru nagusienetarikoa. Erreforma hasi bezain laster protestak tropak heldu eta nekazariei lurra haiena zela esaten zieten, burukideak hautatzeko eta kooperatibak eratzeko eskubidea zeukatela. Nekazariak, harriturik, buruzagiak aukeratzen zituzten. Baina biharamunean soldaduak berriro etorri eta nik neuk ikusi nuen nola buruzagi guztiak hiltzen zituzten banan-banan" (ISTAko funtzionari batek esandakoa).

Horrela junta militarra uztea erabakitzen du azken zibilak, Jose Alberto Villacorta Nekazaritza Ministrordekoak. Gero eskuindarren amnazak zirela eta herritik alde egin behar izan zuen.

1980ko maiatzean Posterman El Salvadorra ailegatu da Gutierrez jeneralarekin hitz egiteko. Ez zuen gauza haundirik aurreratu eta bere burua hiltzeko arriskuan ikusirik Costa Ricatik jarraituko du bere laguntzaile lana. Baina ekainaren 5ean UCSko zenbait kontsejo ejekutibokok "ezin dugu berrikuntza hori apoiatu" esaten diote gobernuari bidalitako gutun batetan. Gutun hau argitaratzea Goardia Nazionalak UCSko 12 kide hil ondoren erabakitzen dute.

Erreforma kinko larrian aurkitzen da. AIFLD erakundea eskuin eta ezkertiarren etsaia bihurtzen da eta UCS eta ISTA erakundeetako hainbat langilek gerrilara pasatzea erabakiko du. Bitartean Hammer eta AIFLDko buruek poliziaren laguntza eskatuko. Viera, beldur da ejerzitoaren jokabideaz eta sarritan erakundea uzteko pentsakizunak datozkio burura. Posterman jaunari agin-

tzten diote Vierarekin bilera bat izateko. Honek ez du nahi eta Hammer izango da Vierarekin hitz egingo duena. Elkarrizketarako Sheraton Hotela aukeratzen dute nahiz eta Posterman jaunak lehendik bere gizoni Hotel honetatik ez agertzea eskatua izan. Dena dela Hotel barruan zegoelarik gazte batzuk kontrol guztiak gainditu eta biak eta Mark Pearlman, Hammer jaunaren laguna, hiltzen dituzte. Gazteek alde egitea lortuko dute.

REAGAN: ZAPALKUNTZA.

Reganek hauteskundeak irabazirik ipar amerikarren kontrako atentatuak berehala ixiltzen dira.

Eskola katoliko bat. Opozizioak prentsaurreko bat emateko bere buru nagusiak bildu ditu. Polizia Fiskala



eta Goardia Nazionaleko gizon batzu, uniformeaz jantzirik, eskolan sartu eta 27 pertsona sekuestratzen dute. Hauen artean Enrique Alvarez Cordova, FDR taldekoa Nekazal Ministeritza utzi ondoren. Hurrengo egunean Cordova eta beste 5 gizonen gorpuak bide bazterrean agertzen dira, mutilaturik Cordovak ukabila heriotzirik eta tente ei zuen.

Ekintza gogorra. Irtenbide politikorik ez dagoen seinale. Horrexegatik da hain berezia 1980.eko Azaroaren 29a El Salvadorreko egoera ulertzeko; egun horretantxe zeazten baitira jokabideak.

Nekazal Berrikuntza atzean gertatu da Viera hil eta gero beronen bigarren Lionel Gomez jaunak izkutatu bizi behar izan zuen eta laster Estatu Batuetara jo. Agian ISTAko funtzionari guztiak hilik edo izkurturik daude, edo herbestean.

Ezkerra apoioa irabazten eta gogor jarraitzen du borrokan, herri ugari bere eskuetan daudelarik. Horretarako FFLM da burruka armatua aurrera eramateko taldea.

Haig jenerala behin baino gehiagotan aipatu du inbasioaren posibilitatea, ez bakarrik El Salvadorrena, Nikaragua eta Cubarena ere bai. Oraindik ez da erabaki ze erataria. Bi aukera daude. Bata, interbenzio zuzena. Bestea, beharbada pisu gehiagokoa, beste herrietako ejerzitoen bidez, esaterako Honduras, Guatemala,...

Lehen aukera ia bazterturik dago, bigarrena oraindik ez. Honela ipar amerikarrek ejerzito bat eratuko zuten. Horretarako prolema bat: Nola eratu garaiz ejerzito hori?

Guatemalak ba dauka ejerzito ona, ongi prestatua, baina beharrezkoa du bere barruan dagoen mugimendu herritarra baretzeko. Hondurasek USAren laguntza izan arrenejzito ahula dauka, gainera El Salvadorrekin izandako "Futbol Gudua" zelakoaren ondoren ez da egokiena. Venezuela, junta militarren aldekoa izanik ere, kritiken beldur da eta ez du zeregin hori beteko.

Beste hirugarren aukera ere kontutan artzekoa da. Kubanoek, herbesteratuek jakina, eta Somozaren Goardia Nazionalekoek osatuko luketeen ejerzitoa. Gaur hauek iadanik Nikaraguaren kontrako ekintzetan hartzen dute parte edo eriotzaren eskoadroietan.

Vitartean diru laguntza aurrera doa. Herriak, aldiz, gogor ekiten dio burrukari. Nork irabaziko?

Adolfo Irigarai

ERIOTZAREN ESKOADROIAK EDO TALDE PARAPOLIZIALAK



Nekazariak "baretzeko" latifundista nagusiek zituzten ejerzito pribatuak lirateke eriotzaren eskoadroiak deritzen taldeen iturria. Ejerzitu pribatu hauek oraindik ere irauten dute, baina erahilketa gehienak nazio mailan finkatuak dauden erakundeek egiten dituzte eta ejerzito, guardia nazional eta poliziarekiko harreman hestuetan dituztenak, askotan horiekin ere ekintzaren bat egiten dutelarik.

1980.eko maiatzaren 22an 7 eskoadroi taldekoek prentsaurreko litarren ondoan, 1968tik 1979ra bitartean adierazi zuten zuzeneko zuzeneko erabaki zuten "alderdi komunisten eta bere kideek armak edukitze-nistaren buru nagusi guztiak garbitzeko asmoz... marxistak apoiatzen dituzten gobernuko partaide guztiok ere eta komunistak... Juntan boterea truktoreek entrena ditzaten. Talde hartzeko komunista ugari infiltratu honen bilerak poliziaren lokaletan baitira. "Dena dela Gobernuarekin eta goardia nazionalaren bulegoetan harreman sendoak dituzte eskoadroi izaten dira. guztiok.

Eskoadroi ezagunenak ikusiko ditugu: ORDEN, UGB eta FALANGE taldeak.

.ORDEN.

1968. urtean Jose Alberto Medrano "chele" jeneralak sortutako taldea, goardia nazionalen buru zelaririk. Medrano 1972.eko hautesku-ndetan EEBBen hautagaia izan zen. Nahiz eta lehen junta militarrek ez-legalizat jo lege dekretoz, Medranok berriro berpiztu zuen Fronte Demokr-
 atiko Nazionala (FDN) izenpean.

ORDENen indarra 50.000-100.000 gizonetan neurtzen da. Baliteke ere kopuru hauek haundituak izan bil-durtzeko asmoz edo. Beti izan da mi-litarren ondoan, 1968tik 1979ra bi-tartean militarren adar ofiziala izan egitea erabaki zuten "alderdi komu-nisten eta bere kideek armak edukitze-nistaren buru nagusi guztiak garbi-tzeko asmoz... marxistak apoiatzen re lurrak uzten dizkiete israeldar in-sere eta komunistak... Juntan boterea truktoreek entrena ditzaten. Talde hartzeko komunista ugari infiltratu honen bilerak poliziaren lokaletan baitira. "Dena dela Gobernuarekin eta goardia nazionalaren bulegoetan harreman sendoak dituzte eskoadroi izaten dira.

Sampol hibaiaren ondoan izanda-ko erahilketan hartu zuen parte 600 nekazari erahilik. Hauek ORDEN eta Goardia Nazionala hibaiaren alde ba-tean eta Honduraseko ejerzitoa bes-tean inguraturik erahilak izan ziren. Umeak aidera bota eta tiro egiteko diana moduan. Emakumeak bortxa-tuak eta zigortuak erahil baino lehen. (Hau adibide bat besterik ez da, Mo-gotes herrian gertatua)

.UGB.

Robert D' Aubuisson buru delarik eriotzaren eskoadroirik politikoena

dugu berau. D' Aubuisson Washing-ton-eko Nazioarteko Polizia Eskolan trebatua eta Romero jeneralaren go-bernupean intelijentzi zerbitzuaren bigarren buru zelaririk hark berak su-perbisatzen zituen torturak.

D' Aubuissonnek beti izan ditu CIArekin harreman sendoak eta haue-kin maiz izan ditu bilerak.

UGB-ren lehen ekintza zera izan zen, jesuita guztiak amenazatu, El Salvadorren jarraitzen baldin bazuten hilik suertatuko zirela. Gutxienez sei edo zazpi jesuita hil dituzte.

D' Aubuissonnek betidanik izan di-tu CIArekin harreman sendoak eta EEBBetako enbajadore izan zenak, Robert White jaunak, "erahiltzaile si-kopata"tzat jo zuen behin.

.FALANGE.


FALANGE talde hau ejerzitoko eta indar zapaltzaileetako zenbait ki-dek esaten dute. Bere ekintza naga-sia indar herritarren laguntzaile diren soldadu guztiak hiltzea litzateke, bai-ta ere permisua eskatzen duten sol-daduak (permisua eskatu eta ez omen dira berriro agertzen).

ALFONSO IRIGOYEN: LINGUISTA ETA BESTE HAINBAT GAUZA

Euskaraen arloan zerbait ibili den nork ez du ezagutzen Alfontso Irigoien?

Baserritar itxurako bilbotar honek beti darabil ezpainetan halako erdi irribarre bat: ez dakizu sekula zutaz trufatzen ala mesfidatzen den. Erantzun bat eman orduko pentsa egiten du eta politiko abilen moduan, sarritan, berak adiezari nahi diguna erantzuten du eta ez galdetutakoa. Egia esan, honek ez digu askorik ardura izan, gu ez goazelako jendearengana esan nahi ez duena ateratzera, gure helburua beste bat da: zerbait esateko duen jendea ezagutzera ematea.

"Fontso" hainbat arlotan saiaturikoa da, eta arlo horietarik ezezagunena agian, pinturarena izango da. Hamabi urte zituela, 1941. urtean, Bilboko Arte eta Ofizioen Eskolan sartu zen eta dibujua ikasten saiatu hiru urtetan, lehen saria irabazirik hiruretan. Pintore talde baten ere ibilia da, gaurregun entzute handikoak diren batzuekin —Barceló, Ibarrola, Sota, Toja...— eta hiru erakusketa egin zituen, bi bakarrekoak. La Gran Enciclopedia Vasca-k argitaratutako "Pintores y Escultores Vascos" delako bildumako XV liburuan agerzen da Alfonso.



ANAIT.— Pintore sentizen zara?

ALFONSO.— Ni lehenengo pintorea izan nintzen eta gero euskal munduak sartu. Garai batean asko pintatzen nuen baina euskal munduan sartu nintzenetik nahiko utzita izan dut. Azken urteotan zerbait egiten saiatu naiz eta aurrean Aulestiko paisaje bat pintatu dut eta nire emaztearen erretratu bat ere egin dut, beste gauza txikiagoen artean. Bera oso pozik dago erretratuarekin eta oraindik askoz ere pozago lehengo egunean Lazaro Uriarte pintura kritikoa gure etxera etorri zelako eta sekulako laudorioak egin zituelako erretratuegatik.

ANAIT.— Damututa zaude uzteagatik?

ALFONSO.— Ez, ez, beharbada damututa egon naiteke lan gehiago egin izan ez dudalako bai euskal linguistikan eta bai pinturan. Behar bada ge-

hiago egin behar nuen eta damua bide horretatik etor daiteke.

ANAIT.— Agian zure dibujurik ezezagunena Sebero Altube-ri egin zenion erretratu izango da. Noiz egin zenuen hori?

ALFONSO.— Urtea ez dut gogoratzen ondo baina 1961.ean izan zela uste dut, azaroaren 14an. Jadanik mugaz beste aldetik etorria zen eta Gernikara joan nintzen. Han jarri zen bere gelan, txapela eta bufanda ipini eta egin nion. Gero hainbat urtetan eduki nuen, baina Leopoldo Zugaza etorri zen batean, erosi nahi zidala eta, saldu egin nion. Berak du orain.

EUSKAL MUNDUAN MURGILDURIK

ANAIT.— Noiz sartu zinen hizkuntzalaritzan eta euskararen munduan?

ALFONSO.— Aspaldiko urteetan Euskaltzaindian sartu nintzen euskaraz-

ko klaseak ematen; orduan ez zen alfabetatzea eta berreuskalduntzea deitzen baina guk lan hori egiten genuen. Norbaiten beharra zegoen eta neu sartu nintzen Nazario Oleaga-rekin batera eta harrez gero Euskaltzaindiko gauza guztietan ibili izan nintzen, Euskera aldizkaria ere atera nuen, bertsolari-txapelketak ere prestatu genituen Euskal Herri osoan eta mila gauza... ez dakit, luzeegi joango litzateke guztia esatea. Gero Salamanca-ra joan nintzen estudioak egitera; han Filologia klasikoak egin nituen eta. Deustuko Unibertsitatara sartu, eta geroago, Institutoko katedra bat irabazi dut.

ANAIT.— Linguistika arloan zer publikatu duzu?

ALFONSO.— Artikuluak asko, Euskera-n, Fontes-en eta halakoetan. Orain, esate baterako, Gasteizen, "Congreso de Estudios Históricos, Vitoria en la Edad Media" izeneko jardunaldietan irakurritako lan bat



ANAIT.— Irakaskuntzaren arlotik irten orduko, Deustuko Unibertsitateari buruzko galdera bat nahi dizut egin. Zuk hor urte asko daramazu klaseak ematen, Euskal Linguistika hain zuzen, eta noski, zure eskuetatik ikasle asko pasatu dira, zenbat gutxi gora-behera?

ALFONSO.— Neuk baneki!! asko.

ANAIT.— Eta nortzu? Esan zeniguke izenen bat, gaurregun arlo honetan ari direnen eta zure ikasleak izan direnen batzuren izenak?

ALFONSO.— Asko dira, baina esate baterako Gotzon Garate, Xabier kintana, Patxi Goenaga, Adolfo Arejita, Jon Kortazar, Altzibar, Joseba Sarrionandia, Jon Juaristi, Rikardo Badiola eta beste asko.

POETA

ANAIT.— Literatur arloan zer egin duzu?

ALFONSO.— Batez ere poesia eta nahi baldin baduzu "Sorterriaren alde" liburua, baina literatura baino gehiago gauza erdi autobiografikoa da.

ANAIT.— Poesian, oker ez banago, 1966. urtean "Premio Nacional de Poesía Universitaria" irabazi zenuen eta hurrengo urtean Bilboko Udalen Lore Jokoetako lorea eta baita Iruñeko Unibertsitatearena ere. Ihaz berriz, Bizkaiko Aurrezki Ku-



txaren "Arrese Beitia" saria irabazi zenuen, ez da?

ALFONSO.— Bai, baina ni ez nintzen izan saridun bakarra: lau izan ginen saridunak.

ANAIT.— Hori "orbek eta Orri" izeneko poema bildumaz irabazi batean zera ipintzen zuen: poeta itxura baino arkitekto itxura handiago hartzen du; imaginazioz urri, topikoz josia... Horretaz baduzu ezer esatekorik?

ALFONSO.— Nik horrezaz ezin esan dezaket ezer, behar bada arrazoi dute eta kritika egin dezate. Gustatzen zaionari gustatzen zaio eta gustatzen ez zaionari ez zaio gustatzen. Geroak esango du zer alderditakoak diren gehiago. Edozein modutan ere neurtua egitea arkitektoa izatea baldin bada poeta handi gehienak arkitektoak dira. Beste batzu aparejadoretara ere ez dira heltzen.

EUSKALTZAINDIAK:
NORMAK EMAN

ANAIT.— Euskal Herrian munduguztiak entzun du Euskaltzaindiaz zer bait eta halako sinbolo bat da gehienontzat, baina bere barruko berririk apenas dakigun ezer eta zuk, Euskaltzaina zarenez gero horretaz zer bait jakingo duzu, zer da barrutik?

ALFONSO.— Nik Euskaltzaindia kritikatu ere egiten dut inoiz, eta barrutik egin ere, eta nahiago dut ezer ez esatea.

ANAIT.— Euskaltzaindia "Real Academia" da, baina noiz izango da "Akademia erreala", benetakoa, Frantziakoa eta Espainiakoa diren bezalakoa, errespetatua, indartsua, arauak ematerakoan ahaltsua?

ALFONSO.— Nik uste dut neurri handi batean ortografiari buruz ipini dituen normak jarraitu egin direla eta Euskaltzaindiari halako errespeto bat diola Euskal Herriak neurri batean edo bestean. Hori etorkizunean mantendu eta hobetu egin behar duela? konforme, eta uste dut ahalegin guztiak egin behar dituela Euskal Akademiak, mesede egin dezakeelako alderdi horretarik. Gure hizkuntzaren egoerak laguntasuna behar du beste ezer baino ge-

publikatu da "Sobre el toponimo Gasteiz y su entorno antroponímico". Beste alde batetik atera berria den Leioan egin zen Nazioarteko Jardunaldien liburua —iker 1— eta hor nire lan bat dator "Haur ola zirola. Elementos deícticos en lengua vasca".

EUSKARA IRAKASKUNTZAN

ANAIT.— Esan duzu Institutoko katedra bat irabazi duzula, ba, hari horri jarraituz, uste duzu gaurregun institutoetan eta eskoletan ematen diren euskarazko klaseak zerbituko dutela ezertarako?

ALFONSO.— Bai, zeren umetan ikasten den hizkuntza bat gero lantzen baldin bada, balio duen gauza bait da. Ez da berdín hizkuntza bat lau-bost urtekin ikastea —nahiz eta lehenengo urteetan guztiz ez ikasi— edo hogeita hamar urterekin hastea. Bost urtekin hasi direnak gero euskaraz ondo ikasi behar dut esaten badute, oinarria ba dute.

ANAIT.— Inoiz normalizatuko da benetan euskara?

ALFONSO.— Ez da gauza erraza, problemak handiak ditu. Jakina, Euskal Herrian euskaldunak gutxiengo gara eta normalizatzeko gehien-go izan beharko ginateke. Gaurregun ba da neurri batean edo bestean plan bat, gogo bat Euskal Herria berreuskalduntzeko, baina oraindik ez da nahikoa. Gehiagora joango balitz ere, umeak irakaskuntzan euskaldunduko balira ere, ez litzateke nahiko eskolan bakarrik ematea euskara, telebista eta komunikabideak ere horren oihartzuna izan behar dute. Ba dakit telebista bultzatzeko asmtan direla baina hori egia bihurtzea da komeni zaiguna.

hiago.

ANAIT.— Baina legeetan gauza ez doa hain argi. Bai Estatutuan eta bai Normalizazio Legean "Euskaltzaindia es institución" dakar, "la" famatua kenduta.

ALFONSO.— Hori politikoen kontua da eta ni horretan ez naiz sartzen. Egia esateko, nire eritzia esan baldin behar baldin badut, nik ez dakit Estatutuan zergatik ipintzen duten hori, nik ez bait dut uste inongo konstituziotan akademiak aipatzen direnik. Batuzk aserretu egiten dira "la" kendu dutelako eta abar, eta nik esaten dudana: zergatik ipini dute ezer?. Euskaltzaindiari halako zerbait eman nahi badiote, eman diezaiotela de facto, baina ez dago Estatutoan jarri beharrik. Hor agertu ez arren ere, Euskaltzaindiak euskarekiko gai eksklusibo bat bere berea dauka, beste inorena ez dena: normak ematea.

**OTEIZAK BERTSOLARIETAZ
EZ DAKI EZER**

ANAIT.— Zer da zuretzat bertsolaria?

ALFONSO.— Bertsoak kantatzen dituen.

ANAIT.— Hori baino ez? Bertsolarien inguruan mitologia asko egin da.

ALFONSO.— Mitologia?

ANAIT.— Bai, esate baterako, Oteizak gure iraganaren ahotsa eta ahaztuta duguna argitzeko bidea... (Hemen Alfonsok ebaki egiten dit eta ahotsa indartuz...)

ALFONSO.— Bueno, Oteizak bertsolarietaz ez daki ezer.

ANAIT.— Idatzi egiten du behintzat.

ALFONSO.— Hori bere gauza da. Idatziko du baina ez dakien gauzaz idazten du.

ANAIT.— Bueno, eta Oteiza bakan utzita, itzul gaitetzen harira, zer da bertsolaria: artista, deportista...?

ALFONSO.— Poeta. Orain, poesiak maila asko ditu. Herri literaturan ba dira ahoz-ahoz guregana heldu diren gauza oso onak eta poesiaren al-



detik bere balioa dutenak. Jakina, guregana heldu diren gauzak onak dira, zeren egiten diren txarrak baztertu egiten bait dira.

ANAIT.— Zuk bertsolaritza zer egin duzu?

ALFONSO.— Euskaltzaindiak egin zituen bertsolari-txapelketetan ibili nintzen hainbat urtetan, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan; gero, probintzia bakoitzeko txapelkunekin eta Ifarraldeko-ekin —handik Xalbador eta Mattin etortzen ziren beti— Euskal Herri osoko txapelketa egiten zen, eta ni, guztietara joan nintzen bat bera utzi gabe. Hainbat ibilirik azkenean, bazkalondoetan eta halako zeretan nik neuk ere kantatu izan dut inoiz bertsolariekin, batzutan bertso eskasak eta beste batzutan ez hain eskasak.

ANAIT.— Orduko argazkietan ikusten denez, gai-jartzaile tipikoa zinen. Gaurregun zergatik ez zara ibiltzen?

ALFONSO.— Aspalditik ari dira beste batzuk horretan eta uste dut ondo

egiten dutela. Nire beharrianik ez dute eta ez didate deitzen. Nik ba ditut beste lan asko egiteko, ez dago problemarik horretan.

ANAIT.— Bertsolari artean hainbat ibiliz izango duzu anekdota bat baino gehiago. Konta iezaziguzu bater bat.

ALFONSO.— Iruñeko Gaiarre Teatroan izan genuen Nafarroako Bertsolarien txapelketa nagusia eta NARBARTE gelditu zen txapelkun. Gero hori bukatu eta gero, bazkari eder bat egiten zen jende asko joanik. NARBARTE-ri emakume bat hurreratu zitzaion periodista zela esanik eta elkarrizketa bat egin nahi zuela berarekin. Jakina, periodista horrek ez zekien euskaraz eta esan zion:

— ¿es usted casado?

— no

— ¿es usted romántico?

eta bere aldamenean Arozamena zegoen eta ahapetik esan zion:

— Hi aizak, zer dek hori?

— Ez zekiat, erantzun zion Arozamenak, eta periodistak berriz:

— Le pregunto si es usted romántico.
— No, no, soy pastor.

Narbartek ez zekien ez irakurtzen ez idazten.

AZKUE, ARESTI ETA BERRIATUA

ANAIT.— Zuk Resurrezio M. Azkue ezagutu zenuen. Nolakoa zen zuk ezagutu zenuenean?

ALFONSO.— Bere azken urteetan ezagutu nuenez gero jadanik nahiko zahartua zegoen eta orduan, egia esateko, Azkue bera ez dut tratatu. Inoiz Euskaltzaindira joanik, han aurkitu, hitz egiten hasi eta handik bost minututara galdera berbera egiten zuen —ahaztu egiten zitzaizkion gauzak—; orduan, ezin esan dezaket bere nortasun osoan ezagutu nuenik.

ANAIT.— Eta Gabriel Aresti?

ALFONSO.— Nik Gabriel Aresti Antonio Labaien-en bidez ezagutu nuen. Orduan Euskaltzaindiko gauzetan



sartu berria nintzen, eta bera euskaldun berria, oraindik doi-doi zekien. Bere garai purista pasatzen zegoen eta akordatzeko naiz numerazio berri bat asmatua zuela, Arana Goirik egindakoaren antzekoa. Nik orduan gauza guzti horiek burutik kendu nizkion eta Aresti beste bide batera etorri zen gure Euskaltzaindiko orduko joeran integratuz eta abar.

ANAIT.— Imanol Berriatua?

ALFONSO.— Pertsona ona eta zintzoa izan da beti, fraile aldetik frañtzizkotar osoa, lege zaharrekoa. Euskararen alde jarri zenez gero oso sutsu ekin zion. Gainera Aita Berriatua hemendik kanpora ere ibilia izan da eta ba zuen bere mundua —ingle-sa ondo zekien, Cuba-n ere ibili zen— eta kezkatu zegoen euskararen batasunarekin. Hala eta guztiz ere, Aita Berriatua garai bat baino gehiago izan du: esaterako, nik ezagutu nuenean ANAITASUNA Bizkaiko euskera hutsean ateratzen zen, baina jendeak ulertzea nahi zuen eta ez zuen inolako kezkarik erdaratikako hitzak sartzeko, ez zen purista. Baina Bigarren aldian berak eta beste askok ikusten genuen euskara batu bat ere behar zela Euskal Herri osorako eta bere bihotz osoa ipini zuen alderdi horretan.

ANAITASUNA

ANAIT.— Imanol ANAITASUNA-rekin zebilenean ezagutu zenuela esan duzu?

ALFONSO.— Bai. Garai hartan ANAITASUNA orri bat zen. Geroago nire esku ere gelditu zen eta zenbait al-daketa egin nion, TBO bat ere sartuz. Gero beste batzuren eskuan ere ibili izan da.

ANAIT.— Zer deritzozu gaurregune-ko ANAITASUNA-ri? Gogor eta egia!!


ALFONSO.— Garai batean Aita Berriatua artikulu guztiak zuzendu egiten zituen, euskara ederra agertzen zen aldizkarian berari esker. Orain, azkenengo aleetan zabarrago ere etorri izan da euskararen aldetik. Nik ideologiaren aldetik ez dut juzkatu nahi, horretan ez dut sartu nahi. Esango nuke, egunkariak atera direnean, bai DEIA eta bai EGIN astekari edo hamaboskari edo hila-betekariak —uler dezagun Z. ARGIA eta ANAITASUNA-pixka bat bazter-turik gelditu direla. Lehen kasu gehiago egiten zitzairen beharrezko-goak zirelako, ez bait zegoen besterik.

ANAIT.— Beraz, zerbait izateko DEIA eta EGIN itxi beharra dagoela: erdaraz esaten den moduan "lo tenemos claro".

Hemen amaitzen dugu elkarrizketa.

Esan beharra dago, lanetik irtenda gero ustegabearen harrapatu dudala Alfonso eta nakatuta egonarren ez duela inolako oztoporik ipini. Beraz, eskerrik asko.

JOSE R. BILBAO



MUNDUKO FUTBOL TXAPELKETA: MILOETAKO GAIOA

Ez da soilik kirol ekintza hutsa, diru pilaren zabalketa baino. Egia esan, hori da Espainiako ekonomia zaindaria direnek uste nahi dutena. Gainerako entepresetarako dirurik ez baldin badago; esan nahi da, langabezia gelditzeko behar genituzkeenak ireki beharrean, turistak erosoago egon daitezzen inbertitzen omen da.

Baina artikularen helburua ez da Madrilgo gobernuak ezartzen duen ekonomia politikari kritika egitea, baizik eta, futbol txapelketa mundial hau dela eta mogitzen ari diren milioeak nondik eta norakoak diren azaldu.

Hogezitalau talde izango dira txapelketa mundialaren azken aldi honetara aurkeztuko zaizkigunak. Jende ugari, beraz. Horiek guzti horiek hamazazpi herritan bananduko dira eta 7.368 milioe pezeta beharko omen dira futbol zelaiak nolabait egokitzeko eta konpontzeko, milioetarik 2.271 milioe RCOE (Espainiako Erreal Kirol Komite) honek jarriko ditu, beste guztia futbol taldeek, berek, jarri beharko omen. Falta diren 5.100 milioeak eskuratzeko maillegu bezeria emango dute bai Eraiketarako Mailegu Bankuak eta Espainiako Herri Mailegu Bankuak. Hauek ezarriko duten amortizapena 11 urtetan ordaintzeko eta %11aren urte interesa.

Zenbaki hauek harrigarriak izan arren, badira, gure ustez, beste zenbait datu aipagarri. Azken partiduak 1.500 milioe pertsonak ikusiko bide dute eta horren aurrean entepresa handiak jokora hurbiltzen dira.


West-Nally etxeak, hamar urte diela suiza-alemania-ingalaterrako diruaz eraikiriko multinazionala, 36 milioe suiziar franko ordaindu dio FIFAri futbol zelaietan jarriko den publizitate estatikoa erosteko, publizitate honetan munduko enteperasik handienek agertuko dute beren burua.

Eskubide hori lortzeko zenbat ordaindu behar izan duen ez dakigu, baina ez da gutxi izango agian. Coca-

Colakoek honelako esaldi hau bul-tzatuko dute haien marka indartzeko: "Coca-Cola: Mundukoaren irribarra". Txapelketan zehar 750.000 unitate saltzea estimatzen dute. Bernabeun emango den azkenean, esate baterako, 500 saltzaile batuko ditu entepresak helburuak lortzeko.

Guillette, Reynolds, Canon, Seiko eta Fujifilm etxeek eskuratu dituzte publizitatea egiteko zeuden eskubide guztiak.

Coca-Cola etxeak, beste horren beste egin du. Futbol zelaietan salgai egongo den edari bakarra aipa Coca-Cola hau izango da.



Ibermundial etxea da mundialeko logotipo eta sinbolo guztien banatzaile eta koordinadore bakarra. Entepresa hau West-Nally eta Espainiako Futbol Federakuntzak osotzen dute erdi bana. Ibermundialak administraturiko publizitatearen ehuneko berrogeitamarra Espainian gelditzeko da, hauetatik Espainiako Federakuntzak 1.200 milioe eskuratu ditu oraingoz.

Baina 82an emango den Futbol Txapelketa hori ez da soilik publizitateari begira antolatu. Badira, gure ustez, beste bi arlo garrantzitsu: garraioen arloa eta telebista. Pegaso, Iberia eta Renfe izango dira garraioez arduratuko direnak. Pegasok, bere aldetik, 110 autobus jarri du antolatzailen esku, bidaiak eta abar egiteko. Autobusetatik hamazoztzi eki-poak alde batetik eta bestera eramateko izango dira, beste guztiak ikusleak, antolatzailak eta abar mogitzeko erabiliko omen. Iberiak eta Renfek, haien aldetik, hamalau eta ha-

mabi milioe pezeta jarri dituzte antolatzailen esku futbolarien bidaiak dohainik izan daitezzen Espainian zehar, heuren helburua dirua baino, etxe propaganda ugarituz.


Telebista dugu, egia esan, indarririk handiena egigo duena, bai serbitzuak ugaritzeko, bai aurpegia ikuzteko. 15.000 milioe dira inbertituko dituenak, Espainian egingo diren inbertsioetarik erdia, milioetatik kopuru handia Madrilen eraikitzen ari diren Zābalkunde Zentruāko izango, baina beste asko eta asko material berria eskuratzeko, hots, beste urtetan egin ez den berrikuntza mundialen

aitzakiaz egin beharko da.

Telefonika eta Turismo etxeak dira sano poztuko diren etxeak. Telefonikak egigo dituen inbertsioak 3.460 milioetakoak dira, kabinak, lokutorioak, trasmisioak eta satelite-etan partaide izateko dira milioeok. Turismo etxeei dagokienez Ecuador, Marsans, Meliā eta Wagons Lits konpaniek Mundialespaña izeneko taldea sortu dute munduan zehar bai hotel plazak eta futbolerako atera diren sarreretatik erdiak beraiek komertzialtzeko. Turismo taldeok hirurehun mila bisitari espero dute Futbol Txapelketa mundialean.

Azkenez, aseguro etxez mintza beharra dago. Txapelketa osoa dago aseguraturik. Txapelketa betetzea ezinezkoa balitz 8.000 milioe daude hor sor daitezkeen hutsak betetzeko; gerta litekeen (?) guda nuklearra aseguratu dute 320 milioez. Kanpoan saltzen diren futbol zelaietarako sarrerak bost milioez aseguratu da. Ez da ezer falta, agian.

Iñaki Polo.



ANAITASUNA LEHENENGO BERTSO-PAPEREN LEHIAKETA

1

*Bertsolaritza gaurregun dugu
jolasa eta kirola
baina ezin du inortxok uka
baita dela poet-ola,
literatura herritarra ta
gure nortasun etxola,
Herri honetan frutu ugari
emana duen arbola:
merezi du-ta beraren alde
dezagun zerbaít antola*

2

*Bertsolaritzak beti izan du
arlotarra desberdin bi
ANAITASUNA-k inportantzia
eman nahi die bieri.
Jende aurrean egiten dena
bihurtu bada lore
bertso-papera ta idatzia
alboan ez dadin geldi
orri pare bat nahi genioke
aldizkarian edegi.*

3

*Kiroltasuna nabarmentzeko
lehiaketa izango da
zazpi bat bertso neurri aldetik,
gaia norbere gustora.
Epai-Mahaikoak izendatzeko
ba da oraindik denbora
erabakia sei hilabete
barru edo emango da,
beraz lagunak, gerran sartzeko
prepara zeuen polbora*

4

*Sarigarriak diren bertsoez
jokatu nahi dugu jator
publikatuak beharko dira
ANAITASUNA-n derrigor.
Datozen denak publikatzeko
—aserre ez dadin inor—
orrialdetan behintzat pare bat
gordeta daduzkagu hor.
Asunto dena martxan dago-ta
ibili zaitezte bizkor.*

5

*Bertsolariak firma dezake
izen ala izenordez
hala nahi badu bere izena
azken-azken arte gordez.
Irabazleak jokatuko du
edozein gizon jator lez
eta hartuko du guregandik
errespetuz ta ohorez
sari bezala afaritxo bat
diru zikinaren orde.*

J. R. BILBAO



7—Gure artean hagonez gero
ez zeukeagu kupida.
Proposamen bat egingo diat:
etor hadi Santurtziral
Denok batera herrian zehar
eta Serantesera bira.
Bihotz barrura sartuko zaiguk
lore-etzpainen dizdira.

Doinua: "beti penetan".

1—Picos de European amildu haizela
gaur netorrek hiregana.
Gogoan diat euskara eta
harriaz egindako lana.
Gure mundua hobe itzultzeko
ahalegin handia emana.
Orain eztiki, hire larruan
natura amaren laztana.

2—Higan nabarmen genedukana
esango diat laguna.
Hire izaerak izurtzen zian
edonon zintzotasuna.
Desagertzeak utzia ziguk
ingurua alarguna.
Baina hementxe beti egongo
duk hire bizitasuna.

3—Arazo latzak konpondu nahiean
ba huen modu polita.
Hiregandikan ba zeuzkeagu
pentsu onak ikasita.
Adiskideok maite hindugun
ez baihengoen zirika
gu alaitzeko ez beti mu tu
hire errearen musika!

4—Askotan labur pasatzen zaiguk
bizi izateko epea.
Gizarte hontan egoten dituk
dohainak eta kaltea.
Gertaera hontaz puskatua duk
sufrimenduak katea.
Lo amestian lortuko ahal duk
txit maite huen bakea!

5—Zergatik goiko izar begiek
malko garden bat daukate?
Haien aintzira herio beltzak
hauts gris kokkorraz dik bete.
Betazpe hoién irri alaia
bihurtu egin duk neke
esan, Iñaki, zergatik beti
onenak joaten zarete?

6—Nik hau guztiau esatean ez
diat egiten losintxa
Hire aldetik jarri zeudean
egia huts ta hitza.
Ibar freskoan etzana huen
askatasunaren bitsa.
Hobe geundeke Euskal Herrian
hi lako askorik balitza!

SANTURTZI.



Iñaki Lasa, adiskidea

"Ni naiz zorionaren trenea. Euskal Herria bisitatzen ari gara". Nork gitudatuko du datorren udan zorionaren trenea, Iñaki? "Ea, etorri denok, ez da ezer gertatzen, ez izan beldurrik" esaten huen Iruñeako gau argitsuan, baina guk, badaezpada, pauso bat aurrera egin beharrean atzera egiten genian, aurrekoak eramandako txaloan eskarmentu hartuz.

Hi eta Udako Euskal Unibertsitatea batera zaudete nire gogoan. Duela hiru UEU ikusi hindudan lehenengoz eta ordutik hona urtero egon gaituk elkarrekin Iruñeko Larraonan. Bertaraino bizikletaz helduta, jazkera deportiboa eta "akademikoa" bat bera eginik, beti fraka laburretan ibiltzen hintzen, bai lehen urte hartan eta bai ondokoetan ere. UEUko partaiderik aktiboenetakoa hintzen; klaseetan eta klaseetatik kanpo, egunez Larraonan eta gauz edonon, hire lanak berebiziko lorratza utzi dik UEUn.

Afal ostean, beti ibiltzen gintuan hire bila, Larraona aurreko zelaian jolasen bat antolatzeko edo San Juaneraino buelta bat egiteko. Gogoratzten nauk lehen urtean irurtzunera irten ginela asteburua pasatzeko asmotan. Autobusean hogeitabat UEUkide gintuan eta sekulako giroa montatu huen Azpeitiko Mikelen laguntzaz. Irurtzuneko jaia bukatu eta gau-pasarako gogoan galduta, autostopez itzuli gintuan Larraonara, ia-ia kontrola itxita heltzeko. Ez zen posible gau osoan kanpoko atea zabalik egotea? Gautxorien betiko leboa...

Garai hartan hasi zituan dantza-klaseak ere. Eguerdian, bazkal aurrera, gure herriko dantzak ikasten saiatzen gintuan, ikasitakoa gauean praktikan ipintzeko, txitulariak jotzen hasi bezain laster. Ez zuan erraza erritinoa segitzea, gero! Lagunak ekin eta ekin gure gorputzei saltsa pixkat eman nahian, baina ez omen gintuan dantzarako sortuak eta...

Larraona barruko lana ere aipagarduk. Fisika sailekoa, besteetan baino gehiago hor egoten baihintzen, bestek aipa zezakek nik baino hobeto. Dena dela, anekdota gisa esan behar diat aurtengo ikastaroan Fisika



ren historiaz ari ginela eta, halako bat hiko desegokia zela pentsatuz, hau tetan, zientzia eta erlijioa zirela-ta agertu zuan proposamen bat, mahai-eztabaida bat atera zela klasean. Hikin "suge" bat egitea, hain zuzen. ikusi huen jendeak hortaz zer esanik Berehala egin zuan mahaien dispoiba zeukala eta, klasearen arduraduna zio berria eta denok pozik. Zergatik hintzenez, handik bideratu nahi izan pentsatzen hituen hik horrelako gauhuen, fisikarien izenak eta izanak enzak eta ez besteok?

tzutea baino askoz ere positiboagoa Euskara asko hekien, eta gehiagozelakoan. jakiteko beti prest, hiretzat, alde bat

Bestalde, hire lana, askotan "ofialtetik, eta hire ikasleek hobeto ikas tasunetik" at gelditzen zuan. Honez ezaten, bestetik. Aurten nahiko kezta Larraonako hormek ere ba diate kati agertzen hintzen euskal azenzer kontatu. Behin hire idazki luze tuaz: Anaitasunan ateratako artikulubat jarri huen "ezkertiarismo" erralua egun haietakoa zuan, hire osaba za salatzen zuena. Ongi idatzia ze "Gaztelu" UEUra eraman huen gai goan, dentsuogia beher bada, ideia horretazko bere lanen berri ematera, asko batera botata. Hura izan zuan han ibili hintzen egun batez, eskainik irakurritako hire lehen lana. Azleretan, Ondarruko neska-talde bat ken udan, aldiz, ez artikulutxoren cassettearen inguruan jarrita, Bizkai-bat, aldizkari murala sortu huen. Alko herri horren hizkera eta ahozke-dizkarian heu hintzen zuzendari, ra jaso nahian ("magnetofonia erabili erredaktore eta dena, besteen aldetik behar da, eta bildur naiz hemen ez espero zitezkeen kolaborazioak ez dela gehiegi erabiltzen" hioen)... Eta baitziren inoiz agertu. Hik idatzi nola da, "Logalea zeukan ekilibris-huen hango orrietan Xabier Erro taren kaso" ikusi ondoren sortu mendizalearekin egindako elkarrizke-huen eztabaida hori. Alfontso Irigoietafiktizio bat, galderak zubereraz nekin hain zuzen. Bata esaten dela, emanez eta Erro nafarraren erantzu-beste esan behar zela, bata berria nak bizkaieraz jasoz. Dena dela, gai-dela, beste amonek esaten zutela, serioagotarako ere balio zian hire azkenean hiri berdin zitzaian bata to. Dena dela, anekdota gisa esan behar diat aurtengo ikastaroan Fisika mahaien jarrera harremanetarako na- "logale"...

Tituluena ere kontatzeko duk. UEUⁿ euskarazko titulua pasatzeko asmoa dutenak ia lorik ere ez diate egiten, ikasi eta ikasi beti, bizitza sozialetikerabat baztertuta, erretiroan edo daudela ematen dik. Hi ere UEU batetan presentatu hintzen B mailakora baina, nola egon denbora osoan gela barruan lanean? Ez, hori ez zuan plana hiretzat. Eta egunez hainbat gauza eginda, ganez juerga ezin utzi, hala ere, titulua aprobatu. Ikasiko ote dugu inoiz?

Beste arlo batetara joanda, aurten, egun batez, irakakuntzari buruz hitz egin genian. Irakasleak ikaslea ahaztu egiten duela esaten huen penaz. Hire Leioako esperientzia aipatzen huen, lehen kurtsoan egon hintzeneko PNNen greba gaizki eramana, azkenean ikasleek pagatu zutena, erreta atera hintzen handik, fisikari bilakatzeko bidea utzita, Fisikako gaiak gero ere lantzen segitu arren. Hire hitzetan zerbait ikasiko nuelako esperantzan kontatzen hidala uste diat... Eta ikasleetaz? Hauengan ilusio falta zegoela esaten huen; ez zegok gaur borrokarik, azterketak aprobatazea eta karrera amaitzea duk helburu bakarra. Urte batzu direla egoera bestelakoa bazen ere, gutxienez zerbaiten alde borrokatzen zuan; orain, nork bere karrera egiten dik, ez besteena...

Ba zegok oraindik zer aipatu: Anaitasunako artikuluak, hire bertsoak,... Artikuluak hor zèudek irakurri nahi dituenarentzat; ez dituk ugari baina gaiak nahiko desberdinak tratatu hituen: Korrika ekitaldia, elikadura eta barazkizaleak, batzuen joera ez-kritikoari egindako bertsoak, euskal azentua etab.

Bertsolari gisa saututxuko eskolako lagunak ezagutzen haute inork baino hobeto, beraiek diate hitza. UEUⁿ bertsolari berriak modu xelebre hartan jantzirik agertu zinetenean, kostatu egin zitzaidan hain dotore zegoan bibotedun tipo hura ezagutzea. Pentsa ezak, ordubete lehenago fraka motzetan eta bizardun ikusi hindudan! Eta ba zekiat batek baino gehiagok kantatzen hasi hintzen momentuan ezagutu hinduala... Ez diat ahaztuko hie lehen agurra Mikel Alkorterri, Fisika sailean lankide eta adiskide huen lagun galdu hari botatakooa...

Honekin lotuta anekdota bat jarri nahi nitek hire etorriaren seinale: Larraonako areto nagusian, gau batez, Yesako esperientzia kontatzen ari zituan, hik, azalean gelditzen zirela eta zerbait gahiago atera nahiean, galdera "konprometitu" bat egin huen; orduan bertako batek esan zian: "Hi, horregatik lasai, gero!" eta hik bapatean: "Bai, ni beti Lasa".

Hasierara berriro itzuliz, nik gautxorien sailburu ikusten haut, iñaki. Azken UEUⁿ beste programekin batera jarri huen Larraonako panelean "Gautxorien saila" izenekoa ere. Sail horretan ez zegoan sailburua hautatzeko beharrik, heu baihintzen dudarik gabe egokiena eta praktikoena. Larraonako belardian, korro handi bat eginez, hire ahotsa entzuten zuan: "Pauso bat barrurantz; beste pauso txiki bat, bale! Jarri atzekoaren belaunetan. Ondo! Hasi denok

ezkerrarekin: Mambrú se fue a la guerra..." eta konturatu orduko gehienak lurrean, elkarren gainean eserita. "Gaizki egin dugu. Has gaitezen berriz" eta buelta... Gau ederrak pasa genitian UEUⁿ "Mambrú"-rekin, "zorionaren tren"-rekin eta hik ateratako beste jolasekin!

Natura maite huen, ekologista praktikoa hintzen, teoria alfer guztiak baino gehiago balio duena. Eta egun batez, sailburuordea izendatu gabe, mendira joan hintzen eta han, Naturarekin batera, gelditu haiz.

UEUⁿ ezagutu haugun guztiok zerbaiten falta susmatuko diagu hurrengoan. Hik hazia erein huen, gure txanda duk orain bere fruitua eman dezan.

Agur Iñaki, datorren UEU^{urte!}

J. Duoandikoetxea



Iñaki Lasa orain ba zaude hortik toki izkutuan nik ez dakit non baina seguru kazetarien moduan papera hartu lumari eutsi zer idatzi ba duzu han ANAITASUNA oraindik dago utzi zenuen lekuan.

Ondo dakigu bidea beti egiten dela ibiltzen zuek aurretik joan zarete guri gurea zabaltzen Nolatan urik daukan sustraia inola ez den usteltzen bizitarako sortu direnak ez dira sekulan hiltzen.

Aintzinarako

Iñaki Lasa Mikel Alkorta orain zaudete batera batak ziria bertsotan sartu bestea erantzutera lagun guztiak saioa entzuten ba doaz zuen parera gu hara joan orduko ere bertsotan etor atera

Aurten ere bai Olentzaroa ba zaigu triste iritsi joan zaizkigun adiskideak ez baitira izan gutxi Festa hauetan guk ez dugu nahi zuek bazterrean utzi URTE BERRI ON opa nahiean denontzat mila goraintzi

BIHOTZ-MINEZ

Ezkilabeltzek, berriro ere, hain ohitura handia daukagun heriotzaren kanta entzun erazi digute Euskal Herrian. Iñaki oraingoan, berak maite izan ez balu hain gorroto nukeen mendiak eramana joan zaigu. Mendiak, bizitza sorrerazten duenak berak, etengabeko bizi-ixuri zena eraman du; haren begietako argi-jario iraunkorra Aitzkorri aldeko gauak zaintzen dituen ilargiarenarekin bil dadin edo haren hanka geldiezinen urratsek Aralarreko egunsentia egu-nero ekar dezaten eraman digu zihur asko.

Maitasuna amaitu delakoan, ekaitz gorriak sua piztu du zeru beltzaren sabelean eta arrano beltza haranera jeitsi da, askatasunak Iñakiren bihotzean ihes egin duela uste izan baitu.

Ilunabarrean, berak kantaturiko bertsoen oihartzun ixilkaitza entzuten dugularik, gorputz gazte ederra laztandu nahi izango genuke eta oskorria argi dugularik maitekiro besarkatu, ea heriotzak, jelsiaz, alboan hartu dion lekua utzirik alde egiten duen, zientziak ezin egin lezaken miraria gertatuta Iñaki guregana bueltatuz. Baina ezintasunaren gaindigaitzaz ohartuz, ustekabea, aieneka eta negar-malkotan hasten gara, hark utzitako lekua bete ezina dela pentsatzen dugularrik.

Zein paisaiatan zautza orain? Zein izarretan hasi zara dardarka zure amari geldirik zaudela esateko? Ezkilak entzutean, ilunaren bildurrez ezkutatuta gara eta ixil-ixilean negarraren saminak zure oroimena ekarri digu gogora. Gero, egunsentian, ezkilen hotza pixkanaka urrutiratu denean, txori errexinularen kanta entzun dugu eta hegaldaka sentitu zaitugunean, oihuka eta jauzika hasi diren taupadek guregan bizi zarela uler erazi digute: mendiko elurraren zurian eta udaberriarren bizian kantari diharduzula.

Agur, Iña, azken hitz hauek oihukatzen dizkizudalarik, negarrak itsututa, hotzikara batek zeharo astintzen banau ere, ba dakit egunen batetan hego haizean edirenen zaitudala, haunitz gauzatzaz berba egin behar baitugu oraingoz.

BITTOR URAGA



IÑAKI LASA HIL ZAGU

Hil zara, Iñaki. Ez zaitut nire eskualdean fonetikazko ikastaroan ikusiko. Ilusioz itxaroten nuen ikastaroa, benetan gogoia nuen zu berriz ikusteko... Baina ez zaitut berriz ikusiko.

Leioan ezagutu genuen elkar. Euskarazko klaseak ematen zenituen Zientzi Fakultatean. Urteak dira. Duela bizpahiru urte ni handik joana ez zaitut berriz ikusi, baina bai sarri zutaz gogoratu.

Zure izena Anaitasunan ikusiz poztu nintzen. Nik aspaldian astirik falta eta alferkeria, noski, zirela idazteari utzi nion, eta zu hasi...

Gauza asko ahaztuta dauzkat, baina biziki gogoratzen zaitut, argala, ile luzea, begi irrifarretsuak, farrazalea,...

Irudiak datoz nire burura: elurraldi batetan bolak botatzen, euskarazko irakasleonez bulegoan,...

Eta bereziki, egun batetan, bulegoan bertan, sofa batetan jesarritako elikadura naturalaz hitz egiten.

Xabierrek ez zuen ulertzen, azken batez bere aita harakina zen eta..., nola zuk ez zenuen okelarik jaten. Zuk barre egiten zenuen...

Gaztea hil zara, Iñaki, gazteegia... Bertsoan ibiltzen zinela esan didate. Bertsoan, AEK-n, Anaitasunan idazten, Benetan emankorrek zure hongoitabi urteak...

Eta ez zara berriz bertsoan ari tuko, ez zaitugu berriz ikusiko. Ez dugu berriz zure irrifar pozgarria ikusiko...

Baina bai, zu ezagutu zaitugunok ez zaitugu inola ere ahaztuko, mutil. Zure presentzia gure barnean dago, zure lana gure artean utzi duzu...

Atzo, zure heriotzaren berri jakin baino lehen, berriz idazteko liatu ninduten. Ez nengoen oso animatuta; betiko atxakiak, astirik falta, Baina berriz hasiko naiz Anaitasunan idazten. Hori izango da nire omenaldia... Zuk utzitako hutsunea denon artean betetzen saiatuko gara.

MIREN EIZAGIRRE

AISE ETA EUSKARA ESKOLETAN

Euskara gora, Euskara behera. Euskara benetan gure eskoletan (sik). Asignatura eta suspentsoak. Gorrotoa, ardura eta kezka. Metodo an inflazioa merkatuan. Euskararen etorkizuna umengan... baina baldintzatua.

Iragan hurbila nola den ikusiz, orainaren gordintasuna dastatuz eta gerokoa geroko utziz, goazen bada, AISEren eskutik, goian aipatutako esera hoietatik eta, beste zenbaite-tatik sortzen diren galderantzunak ikustera. Ea, ikusiaren ikusiz ikusten dugun bada.

1 — ANAITASUNA —: Noiz eta nola sortu zen AISE taldea?

AISE— Ofizialki eta Boletin Oficial del Estado delakoaren bidez, orain dela bi urte sartu zen euskara irakaskuntzan eskola estataletan. Horretarako eta Euskadi mailan, bostehun bat irakasle izan ziren kontratatuak. Euskara irakatsi behar, eta inolako motibaziorik ez zuten haur erdaldunei irakatsi behar. Hau da Boletinaren bidea, eta gure buru haustea: esku hutsik, eta inolako laguntzarik gabe bota gintuzten-zituzten esperientzia berri batetara. Ordu-rako, eta hiru urte aurretik, gurasoen bultzadari esker, arazo honetaz arduratutik, zenbait herritan sartua zuten euskara beren eskoletan. Beraz, baten irakasle-talde bat, eta batez ere irakasle-galdetxo bat lehen urratsak nolabait emanaz batera, lehen zailtasunei aurpegia ematen ere hasiak.

Taldetxo honengana jo zuten beste guztiek norabide bila. Batzar batzu egin ondoren, taldetxo experimentatu horren inguruan sortu zen AISE taldea.

2 — ANAITASUNA —: Gaur egun euskararen irakaskuntza nolabait ofizialki izanik, ez noski normalizatua, zeintzu izan dira ofizialtasun hori lortu den arte, euskararen irakaskuntzan izan dituzuen eragozpen eta oztopo nagusiak?

AISE— Eskoletan sartu ginenean, ez genuen inolako laguntza ekonomikorik, zenbait eskoletan irakasle, eta zuzendaria jatorrak izanik, ondo samar moldatzen ginen. Beste eskola

batzutan, ordea, orri zuriak eskatzeko ere beldurrez ginen. Euskara testimonialki irakasten genuen, Euskara "ofizial" izatea lortu dugun arte, zenbat eta zenbat batzar, manifestaldi eta mobilizapen egin behar izan ditugun! Euskara eskoletan sarerazteko gurasoak aurrelari zirelarik, ez bait genuen ez metodo egokirik, ez legerik eta noski, ez presupuestorik ere.

3 — ANAITASUNA —: Duela bi urte arte, esaten duzue, euskara testimonialki egiten zen Orain ofizialtasuna lortu dugu eta euskara beste asignaturekin "parekatu" dugu. Hau kontuan izanik, zein da euskararen egoera gure eskoletan?

AISE— Zenbait eskoletan eskolaurrea alebidun bihurtu da. Baina, guztietan da hau beharrezkoa. Gainera honek O.H.O.ean jarraipena behar du, jarraipena eskatzen du, tutore euskaldunak alegia. Aurten tituludun euskal irakasle asko, sei eta zortzi geletan ari da euskara irakasten. Gure eritziz, euskararen aurrerapenerako jokabide okerra da hau.

Euskara irakasteko gai den tituludunak, eskolaurrean eta O.H.O.ren lehen mailatan tutore izan behar du. Eta tutore euskaldunik gabe gelditsen diren geletarako, IDONEOAK KONTRATATU BEHAR DIRA. Aurten oraindik Gipuzkoan bertan, berrogei ikastetxek falta dituzte euskal irakasleak. Beste zenbait eskoletan, alebidunak O.H.O.ren bigarren mailan moztuak gelditu dira. Bestalde euskal irakasleak berandu kontratatu ohi direlako eta euskararen benetako planifikazio bat ez dagoelako, lehenengo erdal asignaturen programaketa egiten da eta, ondoren, hutsunerik gelditzen bada, euskarari uzten zaio.

4 — ANAITASUNA —: Etxe berean, baina, solairuz aldatu eta euskal irakaskuntza metodoz josirik dagoenez, zer dela eta beste metodo bat? Kasu honetan AISE?

AISE — Ez da egia haur erdaldunei euskara irakasteko metodo asko dagoenik. Eta gutxiago oraindik, erdal hurrei euskara irakasten esperientzia minimo bat duenak eginik.

Beraz, gu hasi ginenean hutsunea erabatekoa zen. Gurekin bateratsu hasi ziren beste talde batzu hau betetzeko asmotan eta hor ditugu horien emaitza ederrak: Txalopin Txalo

eta Ikusi Makusi eskolaurrerako, eta Arabako irakasle talde batek agertu digun Hegaz metodoa. AISE taldeak O.H.O.ren lehen etaparako AISE 1 argitaratu zuen lehenik eta, orain, haren jarraipen bezala AISE 2. Honekin lehen etapako beharrak asetu ditugula uste dugu oraingoz. AISE metodoa ez da laboratoritatan egina. Guk egileok experimentatu eta landu ditugun materialen bilduna da. Eta hau bai, gu bezala euskal irakaskuntzan dabilen irakasleen, hainbat eta hainbat kritika eta proposamen kontuan harturik.

Aise metodoaren bereizgarri, jolasa eta kulturagiroa dira. Eta hurrei euskararekiko motibapen alai piztea da, berriz, beraren helburu nagusia. Hau dela eta metodoarekin, euskara jolas bidez irakasteko beste liburuxka bat aurkeztu genuen Adarraren jardunaldietan, "EUSKARA JOLASEAN JOLASTU" (Adarra Koadernoak 16).

5 — ANAITASUNA —: Sarreran gerokoak geroko utziz mintzatuko ginel esaten da, baina, atrenbentzia ez baldin bada, zera galdetu nahi nizueke, alegia, zer nola ikusten duzuen eskoletan euskararen etorkizuna, eta zuen zenon lanaren jarraipena.

AISE— Euskarak eskoletan duen etorkizuna oso beltza da. Baldintza minioak ere ez dira betetzen gure lurretan: tutore euskaldunak falta dira, tituludun irakasleak errotatzen ari diren bitartean. Hutsuneak betetzeko idoneorik ez dute hartu nahi: kopuru aldetik, dauden baino talde txikiagoak behar dira eta homogeneoak. Euskara salbatu behar dira, euskararen normalizazioa lortu nahi baldin badugu. Bestela herria engaitzen jarraituko dute.

Guk geure aldetik ez dugu etorkizun hoberik ikusten. Aurrera jarraitzeko asmorik ez dugu galdu. Baina, egia esan, lan egokia egiteko behar diren baldintza guztiak falta zaizkigu. Larunbat, igande eta oporrak lanean pasatzen, aspertuxeak gaude eta, batez ere, gastu guztiak geure poltsikotik egin behar izaten ditugularik. Hala ere, euskara eta euskal kulturaren alde borrokan ohituak gara eta... nork daki?

PROTOIEN ENERGIAREN KONTRA: POTROEN INDARRA* (I)

* (Esaldia borobiltzeagatik esanda. Ez ikusi matxismoa ez dagoen tokiari. Mila esker).

Echevarria, Nervacero, Olarra, Na-farroako autopistaren bigarren fasea, Bardeak, Otan, Ortuella, Soria, Puerto, San Kintin, Yeu, Florac, Lemoiz, neutroi-bonbak, elektroiak, protoiak eta potroak, colza... zuhaitz berberaren adar desberdinak. Hauxe da hain aldarrikatua den progresu mada-rikatuak ekarri diguna. Baina ez, ez gaude konforme: bizirik nahi dugu bizi, gizarte berri batean, gehien adiskidetasunean eta naturarekiko harmoniaz. Gaurkoa progresua bada, porculotik beren progresua!!!

Eta kantatu egingo dugu:

"EZ, EZ DUT NAHI, EZ, EZ, EZ,
EZ HOLAKO ZIBILIZAZIORIK"

Eta progresu kontuarekin burua jaten ari zaizkigu: "O Lemoiz o las velas", "Si no aceptamos el progreso volveremos a las cavernas" (seguru nago, egon, lehengo haitzuloetan otso gutxiago zirela: ez orain beste), "Hay que contrarrestar el poderío de la Europa Oriental", eta holako azpikoz beldurra sartzen.

Eta lanean ari gara, baina burruka latza da; azken batez etsaia ez da hau, hori edo hura, sistema oso bat baizik (nire uste merke eta apalean). Sistema hau oso konplexu eta alde-rantzizkoa izanik, ez da errez ateratzen sustraia.

Hona hemen zibilizazioaren historia beste ikuspuntu batetik aztertze-ko eskema bat (Unesco-k aterata):



30

Energiaren kontsumo indibiduala (Kcal/egun)	Janaria	Etxeko lana eta zerbitzuak	Industria eta Nekazaritza	Komunikabideak (garraioak)	Guztira
Gizon primitiboa	2				2
Ehiztaria	3	2			5
Nekazari primitiboa	4	4	4		12
Nekazari desarroilatua	6	12	7	1	26
Gizon "Industrial"ia	7	32	24	14	77
Gizon "Teknologikoa"	10	66	91	63	230
Gizon "Automata"	?	?	?	?	????

(azkena ez da Unesco-koa)

(Zerbitzuetan bulego-lanak, komertzioa, irakaskuntza, etab sartzen da)

Eta 1981. urtera heldu gara. Goi-ko datuak ikusita zera galde genezake: Gaurkoa, progresua al da? Norena?. Pila bat ariketa egin litezke goiko zenbaki horiekin.

Progresua etengabea izango zela pentsatzen bazen ere gaurko krisiak kontrakoa frogatu du: Mundu finitu batetan bizi gara. Mundu mugatu batetan kontsumo materialaren atengabea hazkuntza ezina da. Beraz, ez dira harriztekoak azken bolada hontan European zehar ospatu diren manifestazio bakezale anti-sistemak: "Arnak egiteko erabiltzen diren metalekin traktoreak egin litezke, lur gehiago probetxatuz, gosez ez hiltzeko", "Gartzelak eraikitzeke erabiltzen diren adeilnekin guztientzako etxe habitagarriak herri habitagarrietan egin litezke".

Idazle ospetsu batek esaten zuen moduan: "Inor ez da benetan bakezalea, jakinduriaren berreskuratzearren alde ez badago". Eta hauxe da egin behar duguna, jakinduria armarik zorrotzena daukagu eta. Gure jakinduria kendu egin ziguten beren progresua guri inposatzeko. Ba da garaia, ba, gurea berreskuratzeko: "Industria modernoak daukan gauzarik harrigarriena hauxe da: asko exigitu eta gutxi lortu. Hain inefikaza izanik gure irudimenetik kanpo gertatzen da. Beraz, ez gara hortaz ohar-tzen". Eta industria diogunean, teknologia diogu, energia azken batez, energia baita gaurko sistemarentzat, gizakientzat kontzientzia beste. Hementxe dago koxka. Gaur modan dauzkagun "teknologia bigunak", ikusteko ez ezik beste modu batez BIZITZEKO ere erabili genitzake.

Batek zioen legez: TXIKIA POLITA DA. Eta Lemoiz haundia. Ondorioz: Lemoiz goma lau eta akabau.

PRONTXIO

ZAIN DEZAGUN BUSTURIALDEA

Busturiako itsasadarra eta ingurua Bizkaiko eskualdetarik gutxien kutsatuen da. Gernikatik itsasorantz hedatzen da padura eta hareetak beretik. Orainarte hegazti migratorioek bertan egiten dute atsedendia eta arrainek hazleku bezala hartu dute. Animalietatik aparte turismo-toki bat ere bada, udan gehien bat.

Busturiako itsasadarra nahiko gorabeheratua izan da azken hileotan, zeren proiektu kirolturistikoa bat, kirolportu eta guzti, tartean egon baita. Proiektu hauek direla eta, egunkarietan hamaika artikulua ageri eta agertzen dira Euskal Gobernu eta plan hauek salaturik, gauza ilun eta izkutuak baitira. Lehenbiziko proiektua, zona kirolturistikoa eta kirolportua, zeharo izkutua izan da. Konstruktore batzuek sinaduren bilketan ibili ziren, eta hauen bidez, oker batzuek zuzendu nahian eta jende askoren laguntzarekin, arestion aipatutako proiektua proposatzen dute, zutik dirauen "Plan Especial de la ría de Mundaca"n babesturik... Eginkizun hauek zurrumurruek bitartez jakin ondoren, "Zain Dezagun Busturialdea"k Bizkaiko Obra Publikoetako zuzendariarekin bilera bat eduki zuen eta, plan horrek nagusi jarraitzen duela argitu.

Bien bitartean, egunkarietan informazio batzuek ageri ziren, nola lan hauek Euskal Gobernuaren babesean zeudela edo beraren baitan zutela. Problema handituz joan zen istiluek sorturik: salaketak azaldu ziren—"Zain Dezagun B," arenak, Euskadiko Ezkerrarenak, A.P.ren "Nuevas Generaciones"enak— eta azkenean, Euskal Gobernuak proiektu hauek ezeztatu ditu, "itsasadarraren baliabide naturalak zaintzeari jarraiturik".

EUSKAL GOBERNUAREN AGIRIA

Azaroaren hemeretzi egunkarietan agertu zenez, Euskal Gobernuko "Política territorial y Obras Públicas"eko departamentuak itsasadarraren zainketarako ikerlan bat eratu du. Lan honetako lehen etapan ekologia eta baliabide naturalak estudiantuko ditu, eta ikerlan honen ardura Aranzadi natur zientzietako elkarteak hartuko du. Etapa honetan itsasadarraren 20.000 Ha bakarrik

ZAIN DEZAGUN



busturialdea

ikertuko dira. Bigarren etapa batean, eta lehenengoarekin koordinaturik, eskualdeko udaletan urbanizatzeko planteamenduak berrikusiko dira. Eta hirugarren eta azken partean, itsasadarra jagoteko gai den normatiba bat prestatuko da.

Euskal Gobernuaren ikerlan eta normatiba sortze honek ez ditu itsasadarraren industria ez urbanismorik ezeztatzen, baina antza denez, normatiba edo delako "Plan Especial" hau bukatua izan arte, ezin izango da posible ezer eraikitzerik, "casco urbano"an izan ezik.

Bestalde, itsasadar hau bere posibilitatepetik probetxatuta dagoela argi dago "baina—Zain Dezagun Busturialdea erakundekoek azaltzen

duten bezala— honen etorkizuna eta lanpostuak ez dira kontrakoak: ahal da itsasadarra errespetatu, turismoa ekarri eta bertako jendeentzat industrializatu; baina plangintza zuzen bat egin arte, itsasadarraren kontrako den ezer eraiki gabe.

Agiri honetan plangintza nolako izango den ez da azaltzen eta horregatik arriskugarria dirudi, zeren itsasadar osoa erreserba natural bezala hartu edo zati bat bakarrik erreserba bezala eta sobera dagoen zona guttia eraikitzeko gai egotea, ez baita gauza bera.

UDALETXEETAKO JOERA

Itsasadarraren ertzetako alkateak, udalek gai honi buruz zer egin dezaketen aztertzeko bildu ziren Urriari. Beraien ustez, udal bakoitzaren ikuspegiak kontuan hartu behar dira, eta plangintzaren partaide izatea eskatu zioten Euskal Gobernuari. Udal bakoitzaren kriterioak kontuan harturik, udaletxe bakoitzak bere prolema bereziak ditu eta: polideportiboak eta kanpinak eraikitzea gehien bat. Zain Dezagun Busturialdearen ustez, prolema hauek eragozpenak sor ditzateke, zeren eta "itsasadarraren arazoak—itsasadarra gauza oso bat bezala dute: itsasoaren parte, hareetak, padurak eta inguruetaiko lehor unedak— eta eraiki behar diren kostrukzioak lehorrean erabaki behar dira, itsasadarra hondatu gabe. Hala egiten ez bada, lehorreko problema edo oker guztiak itsasadarraren gainean, erreilenoen bidez, soluzionatu beharko dira"; eta hau suertatzen bada, padura edo hareeta horiek eskurazinak edo irrekuperabileak izango bide dira ekologia mailan.

Juanjo Ispizua

SALDUTAKOAK

Orain beraz, "denak" elkartu dira; edo EIA-koek dioten bezala, Eusko PCroak EE-n sartu dira, hauen alderdian alegia.

Beren elkargunea, Autonomiako Estatutua da, eta honen ondorengo Vascongetako gobernu.

Honekin, Onaindia eta Lertxundi-tarrek dioteñez, nazio eta klase arazoak deseginda edo batuta geldituko dira behinbetirako.

Hau eginik, XIX-garren mendetik hasten edo palarmentzen kontraesan edo kontradizioa birrinduko da; ez da gehiago borrokarik izanen.

Guzti hau azken egunotan sobera entzuna dugu. Nik uste, esaten ari direnak beren baitan sinestearren dela. Beste gauzetan ere hori bera gerta ohi da. nik "nai nukeena", behin eta berriz errepitakuz, azkenean "benetan dena" bihurtzen bait da. Ez da hori baino konbenzitzeko bide zihurrarik. Erderaz esaten dena: "creerse sus propias mentiras"; edo "il prend ses rêves pour des réalités". Jokabide hau baino boro-bilagorik ez da.

Non dira Onaindiak, "Ezkerrak" eta abar luze batek zituzten borroka armatuarekiko sugarrak? Nondik datorkie, beren bizitzek frogatu dutenaren ondoren, gaurko saltze hori? Eta galdetuko nuke: kasualitatea ote da jauntxo horiek Madrilen, Espainiako oligarkia esplotazaila eta zapaltzailearen gobernuko gizonekin hitzegin ondoren (tratuan ibili ondoren?), gertatuak gertatzea? Zertara joan dira gure etsaiengana? Beren arteko ezkontzak zer ikustekoa du haiekin? Noiztik Euskadiko partidu "iraultzaileen" arazoak Espainiako gobernuan tratatzen dira, lagunartean bezala?

"Hasta ahora ningún pueblo, ningún proletariado y ningún partido

comunista u obrero ha tomado el poder sin sangre y sin violencia.

En lo que respecta a esta cuestión, nuestro Partido opina que debemos prepararnos para los dos caminos y hacerlo bien, fundamentalmente para la toma del poder mediante la violencia, ya que si nos preparamos bien en este sentido también la otra posibilidad tiene mayor probabilidad de éxito. La burguesía puede dejarte sermonear para luego dar un golpe fascista y liquidarte, y todo eso como resultado de no haber preparado ni los cuadros de choque, ni la labor clandestina, ni sitios donde guarecerse y trabajar, ni medios de combate. Debemos prevenir esta trágica eventualidad". (1)

Eta sagituz: horiek orain urte gutxi, Euskadiren Independentzia kasik besterik ez zuten aldarrikatzen. Orain berriz, kasik sozialismoa besterik ez dute deihadartzen. Zer da dantza hau?

Eta sozialismoa balitz...! Zer dela eta Espainiako edo Vascongetako sukurtsaleko PC-k irakatsi behar digu sozialismoa zer den?

Estalinen denboretan "Frente Popular" raren jokabidean zer egin zuten? Militar faxisten golpearen kontrako borrokan handitu eta indartu zen PCE. Han eman zuten beren bizitza benetako komunistek, borrokalariek.

"Al haber desaparecido en la lucha armada y bajo los golpes del terror fascista los elementos más sanos, más preparados ideológicamente, más resueltos y valientes, en el Partido Comunista de España cobró supremacía y ejerció su influencia negativa y destructora el elemento cobarde pequeño burgués e intelectual como Carrillo y compañía. Estos fueron transformando gradualmente al Partido Comunista de España en un par-

tido oportunista y revisionista". (2)

1.960-ean Moskun bildu ziren 81 partidu komunistak, eta han argi eta garbi ikusi zen marxismoaren eta errebisionismoaren arazoa. Maoren txinarrek eta Hoxharen albaniarrek ez zuten amor eman. Espainiako PC-koek ordea oportunismoan murgildu zuten beren burua. Ez litzateke txarra izanen, Hoxhak Biltzarre hartan eman zuen hitzaldi latza berrirakurtzea. (3)

"Nosotros desconocíamos los procesos regresivos internos que se habían operado en el Partido Comunista de España, pero en la Conferencia de los partidos comunistas y obreros de Moscú, en noviembre de 1960, cuando el Partido del Trabajo de Albania desenmascaró abiertamente al revisionismo moderno y en particular al revisionismo soviético, encabezado por el traidor y renegado del marxismo-leninismo, Jruschov, el Partido Comunista de España y personalmente Ibarruri nos atacaron de la forma más rastrera.

Cuando era el momento de defender el marxismo-leninismo, los dirigentes del Partido Comunista de España atacaron ferozmente al Partido del Trabajo de Albania y salieron en defensa de Jruschov y su grupo traidor al marxismo-leninismo". (4)

Brezhnev-en errebiziozalekerian, zein alde hautatu dute?

"En el XXV Congreso del PCUS, Brezhnev señaló que la experiencia chilena (Allende) no invalida la teoría de la toma del Poder por la vía parlamentaria". (5)

Orain ordea itxura gordetzeko, Sobiet Batasunarekin hautsi dutela esanean dizute; orain eurokomunistak direla berresango dute, hura eta hau errebisionismo bera ez balira bezala.

Zerbaitean irakatsi behar badigute, zer egin behar ez dugunean da, zein bide hartu behar ez dugunean da. Noiztik, beraz, gure irakasle?

Eta irakasleak ukanen dituzte ezkontza honetako partaideek. Lidute, proletargo xumeari irakasteko. Denok ezagutzen ditugun "jakintsu" hauek, Euskadiko Ezkerrako kua droak bilakatuko dira, eta nahiz EIA-ko gizon ohoretsuak meritu handiak ukan, baztertuak izanen dira.

Partidua, langileen partidua ez du proletalgoak gidatuko, ez. Zuzenean ala zeharka, sekulan fabrika batean lan egin ez dutenek, fabrika batean lana egitea zer den ez dakitenek baikizik, Hau partidu errebiziozale guztien gakoa da, eta ez kasualitatez.

Nik duda bat banuen, bai, gizon ospetsu hauek iraultzaile edo, (erreakzionarioen jergan, "terrorista") batzurekin elkartzeko gogo handirik izango ote zuten, Berrikitari ordea, Tuñon de Lara jakintsuak, Donostian aurten azaroan bere hitzaldi baikaina eman ondoren garbi ikusi dut.

Honek zioenez, 1931-36 bitartean bertako nekazari eta beste klase batzuren arazo nazionala, eta proletari inmigranteen klase arazoa funditzen ari zen, autonomi estatutua zela eta. Honek bloke historikoa zekarren, eta honen bidez Euskadiren soluzio-bidea.

Denok dakigu, eta bere diszipuloak ere, Tuñon de Lara ospetsuaren hitza ez dela ahuntzaren gauerdiko eztula; bere jarraitzaile hauek hura izan bait dute beren tesien funtsezko gidari.

Honek garbiki erakutsi duenez, Euskadiko arazoa bloke historiko honen bidez bakarrik konponduko da, barnean proletalgoa, nekazariak eta erdiko klaseak sartzen direlarik, Baina bistan denez, ikusi behar zen, nork gidatzen zuen fronte hau. Berak bloke deritzon, baina hau fronte baten planteamendua da. Maok zerbait irakatsi digu horretaz. Hau ordea klase analisi soila da. Nazioa askatzeko beste faktore batzu ere kontutan hartu behar dira, bestela nongo nazioa askatuko genuke, Espainiakoa ala Euskadikoa? Baina horientzako Euskadi, Espainiakoa zati bat besterik ez da, Errusiarrentzako Ukraina, Georgia e.a. bezelatsu.

"Pero la ocupación de un país no siempre se realiza a través de agresiones militares. Esta ocupación, colonización, opresión y explotación se realiza también con otras formas "nuevas", "modernas", económicas, culturales, políticas, que encubren la dominación y la ferocidad imperialista". (5)

Eta goraxeagoko hariari jarraiki; guztiok ezagutzen ditugun lizentzia-

tu eta doktore horiek, Euskadiko Unibertsitateko fakultate eta abarretan goi postuetan direnak, horiek berak, Franco baino espainolagoak beti izan direnak, zer irakatsi behar ote digute? Gure heriotza? Beti Espainiakoa estatu salkratuaren alde borra-katu direnak, bai, borrokatu direnak, orain bapatean... abertzaleak bihurtu ote dira?

Euskadi hitza modan dago orain, baina orain baino beharbada une latzagoetan, Dolores Ibarrurik "Gora Euskadi Askatuta" Deihadar egin zuen. Baita ere Carrillok geroztik. Nora damaigute kolorezko suziri horiek?

Batzuk hiru erregeetan sinesten segi nahi dute. Zer egingo diegu! Baina ez dezatela euskal populua tronpatu. Gure etsai deklaratuak aski ditugu lan horretarako.

Eta EIA-ko militanteen, lehen ETA-koak izandakoen borroka, eta beren bizitza eskeintzea, alperrikakoa izan ote da? Engainatuak izan ote ziren...?

"Dans plusieurs études sur l'histoire de la guerre, Engels traitait du rôle et de l'effet considérables des masses armées dans les guerres justes, les guerres d'autodéfense. Cette idée d'Engels était étroitement liée au nouveau mode de guerre populaire préconisé par lui. "Un peuple qui veut conquérir son indépendance, a-t-il écrit, ne saurait se cantonner dans les méthodes de guerre ordinaires. Insurrections de masse, guerres révolutionnaires, détachements de guérilla partout, voilà l'unique méthode de combat grâce à laquelle une petite nation peut vaincre une plus grande, une petite armée peut s'opposer à une armée plus forte, mieux organisée". (6)

HAROTZA

(1)-Obras Escogidas - Enver Hoxha - Tomo II - pág. 834/5.

(2) (4) (5) (6) Eurocomunismo es anticomunismo - E. Hoxha - pág. 83, 104-5, 190, 280 Berresan behar dut, ni ez nagoela ados honek Maoz esaten dituenetaz.

(3) Obras Escogidas - E. Hoxha - II-garren tomoko azkeneko artikulua.

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabetero

21.zenbakia
ale berezia

JAKIN: 25 URTE EUSKAL KULTURAN

- Kultura eta hizkuntza gerraostean
- JAKINen historia
- JAKINen gaiak
- JAKINen bizitza
- Aurkibidea

Medikuntza prebentiboa

Botika -gintza

1.100 pta. urtean
(ale extra honek 600 pta.
(harpidedunei dohain
bidaliko zaie ale hau)

Eskaideak eta harpidetza:

JAKIN Aldizkaria
Ategorrieta hiribidea
(lehen Gral. Mola), 23, 1a.

Donostia/San Sebastian
Tel. (943) 27 17 13

Zorionak! Azkenean kaleratu da Benitoren disko berria. Lau urteko ixilaldiaren ondoren-ixilaldia disko-gintzan bakarrik-hona hemen beste disko bikoitza eta aurrekoarekin zerikusirik duena formulari dagokionez behintzat. Disko bat herri galetara eskeinia eta bestea Benitoren beraren gaiek osaturik gehien batez. Diskoaren izena Altabizkar/Iztaltzuko Bardoari.

Lan hau plazatzerakoa Benitok inoiz egin duena-guk dakigunez behintzat-egin du: diskoa pretsaurrekoan aurkeztu. Pretsaurrekoan kazetarien galderei erantzun eta diskoa bera aurkeztuz harritu egin gaitu Benitok. Diskoa ELKAR diskoetxeak ateratzen du, ARTEZI desagertu ondoren. Oraindik aurrera ELKAR-ek hartuko dau desagertuaren material guztia. Eta ez da hasiera txarra izan, Benitok erreztasun guztiak izan baititu bere esku diskoa grabatzerakoan. Grabaketa Galdakaoko estudioetan eta diskoaren industri lana Parisen. Detalle txiki guztiak zaindu ditu Benito, beno, egia esan ia guztiak geroago aipatuko ditugun arrazoiengatik. Benito beti izan da kapritxozale eta oraingoan ere ezin ohiturari uko egin, Kapritxosotasun horrek aldiz, ez dio bat ere kalterik egiten euskal musikagintzari. Bai zera!

Benito bera izan da armonizazioen eta grabaketa arazoak eraman dituen. Laguntzaileak aurreko diskoan agertzen zirenak izanik, izan berriren bat edo bi ikusten dugu. Laguntzaileen artean, kuriositate gisa bada ere izen bat aipatuko dugu. Jean Phocas, hasierako Errobi taldean zegoena eta gaur XOXOA estudioetan grabaketa injenieroa dena. Disko honetan kontrabajoa jotzen du Phocasek.

Diskoaren goi mailatasuna ez dugu eztabaidatuko. Hasieratik disko ona dela esango dugu, goi mailakoa, baina gure komentario honek ez luke laudorio hutsa izan nahi eta guk kritikatzean, hori bai kritika positiboari, ekingo diogu. Honela guk ikusi ditugun gauza txarrak aipatuko ditugu zeren diskoari egindako alabantzak leku guztietan irakurtzeko aukera izango duzu eta kritika ere beharrezkoa da.

Lehenengoz eta behar bada inportantziarik gutxien duena, azala. Azala ez da bat ere nere gustokoa eta

BENITO LERTXUNDI: Epikotasunaren bideetatik intimismoa sakontzen.

Partaideak

- Marian Arregi akodeoia
- Ramon Beraza: pianoa, espineta, organoa
- Pello Gereño: gitara
- Joxemari Irastorza: xirularria, flauta, xanbela
- Jose Antonio Irastorza: fagota
- Benito Lertxundi: abotsak, gitara, magal-espineta, armonika, zarrabetea, danborra, dulzumerra
- Pedro Martinez: tronpa
- Joaquin M.^a Melara: arrabita, mandolina
- Jean Phocas: kontrabajoa
- Fernando Saldaña: kromornoa, ganbako biola
- Olatz Zugasti: abotsa

Armonizazioen eta grabaketen zuzendari: Benito Lertxundi.

ez bakarrik nerea hortik ere kritika bera entzun dut eta. Batzutan justifikatua dugu argazki batzuren erabilitzea dokumentu historikoak direlakoan. Baina halan ta guztiz ere ez da ondo zaindu alderdi hau eta disko nahiko pobre geratzen da azalari degokionez, bai barrukoari bai kanpokoari.

Bigarrenez errekurtsoen erabilkeraz. Zenbait unetan musikak aurreko diskora garamatza, Zuberoa-Askatasunaren semei izeneko hortara. Eta hau ez da giroagatik musika errepikatzen delako baizik. Lehen diskoan-aurrekoan-erabilitako musika zati batzu oraingoan errepikatu egiten dira eta honek freskotasuna kentzen dio

diskoari. Ez da asko sakondu behar honetaz konturatzeko, guk lehen entzualdian igarri dugu. Zati hauek Zuberoa diskora garamatza hain zuzen.

Hirugarrenez, eta hau bigarren puntuarekin erlazonaturik legoke, sakontasuna. Sakontasuna jarri dut hitz bat beharrezkoa nuelako eta horretarako ez dut beste egokiagorik aurkitu. Dena dela arazoa hau da: Benitok azken diskoetan, azken hiruetan, herri kantuari sakonago heldu dio eta gainera ikuspegi konkretu batetik (Francisco de Gascua musikologoaren teoria gogoan izanik) zelta musikatik. Eta ikuspegi hori gero eta nabariagoa izan da, gero eta sakonagoa. Lehen diskoan, "... eta maita herria ükan dezadan plazara", bigarrenean "Askatasunaren semei -Zuberoa, eta hirugarren honetan.

Baina lana gero eta sakonago izan bada, musika zeltaren mundua sakondu badu Benitok eta oso ondo, irtenbidea beharrezkoa da. Eta horixe da kezkatzen gaituena. Benitoren lana bide batetik sartu da eta aurrera egin baina aurrera bakarrik begiratzen eta alboko musika korrenteei kasu haundirik egin gabe. Eta honek bere kalteak ekar diezazkioke. Disko batetan ongi ikusten dugu, bigarrenean bardin bere musika askoz gehiago sakondu eta landu duelako baina hirugarrenean txarto ikusten ez badugu era Benito bide estuan sartu dela esango genuke. Eta zer berri ekartzen digu disko honek? Bai zenbait gauza bai baina gehien batez orain arteko bidea sakondu egin du Benitok eta horretan datza orijinaltasuna (bai kutsu gregorianoa ez dugu ahanzten). Gure beldurra hurrengo diskoari begira legoke, bide estu horretan galduko dela Benito agian. Bidean pauso luzeak eman ditu eta orain ikuspegia zabaltzea zaila egingo ote zaio Benitori? Guk horrela uste dugu eta hiru disko hauetan formula hori erabili badu hurrengoan burua bertan galtzeko arriskuan ikusten dugu. Besterik ez.

A, bai! disko hau euskal musikagintzak ezagutu duen onenarikoa dela, Errobiren Ametsaren bidea-rekin batera eta Benitoren aurreko diskoarekin. Eta halako diskoak ez dira edozein lekutan ateratzen. Euskal musikagintzaren onerako izan dedila.

IPARRAGIRRE: ZURE OROIZ.

"Mendeurrena dela eta, gure erakunde ofizial eta pribatuek, oroit egunak, sariketak, antzerkisaioak, idaz lehiaketak eta horrelako ospakizunak antolatu dituzte. Baite komiki bat ere, Jose Mari Iparragirren bizitza bertan bilduz. Alabaina, ekintza guzti hauetan, paradoxa bat gertatzen zen: Iparragirre, ezer ba da eta, kantaria izan da Euskal Herriarentzako. Hor ditu 17 kanta eder, bere sorterriari herentziaz utziak". Honelaxe azaltzen digu Luis Iriondok honen zergatia. Iparragirren heriotzeko lehen mendeurrena ospatu dugun urtean ezinbestekoa Iparragirreri eskeinitako diskoa.


Eta honelaxe dator "IPARRAGIRRE: ZURE OROIZ" disko bikoitz hau, Iparragirren omenez bere mendeurrena ospatu dugularik. Disko arraroa dela esan genezake bertan biltzen diren izenak ikusirik. Era guztietako jendea elkartzen da hemen Urretxuko Jose Mariri omenaldi bat eskeini nahiean edo. Arraroa baita egileen aldetik, edo hobe esan bultzatzaileen aldetik. Zergatik? Goazen aztertzeraz.

Alde batetik hemen elkartzen den jendea ikusirik disko zabal baten aurrean aurkitzen garela ematen du. Alate? Ez dakit, ni neu behintzat bildur naiz hemen agertzen diren izenak irakurri ondoren: Xabier Lete, Gorka Knorr, Imanol, Niko Etxart, Ibai Rekondo,... (ikus ondoan izen guztien zerrenda osoa).

"Horrelakoxe, helburu estetiko, soziologiko eta politiko guztiz desberdinak dituzten artistak, elkar-lan eder batetarako prestatu ziren. Barretetik ezagutu gabe nekez sinets daitekeen bezelako prestutasuna izan digu, geurok ere harriturik gaudearren. Izan ere, gure herri honetan, nork uka diezaioke bere eztarria Iparragirre-ri?" argitzen digu Iriondok.

Lehenengoz ez dakigu ze kriterio erabili den kantarien aukeraketa egiteko. Beno, agian bai. Azken MUSKARIAn Luis Iriondok kanta-

rien ahots berezitasunak kontutan izan zituela esaten digu eta inork ez zuela ezetik eman (1). Baliteke, baina hemen izen asko falta da, izen zaharrak nahiz berriak, azken aldikoak, denon ahoetan dauden izenak.



Bigarrenez, ba dakigu omenaldia beste arazo guztien gaineratik zegoela, eta hala dirudi benetan, baina bildur naiz-lehen aipatu dudanez-disko hau saltsa bihurtu den. Eta hemen nere arrazoiak. Orain arte, eta nahiz eta "Ez dok amairu" taldearen apurtzearen arrazoiak argi inon argitaratu ez, euskal kantarien-zenbaiten noski artean ez dira erlazio onak izan eta taldearen sakabanatzea adibide bat dugu. Beste adibide bat Imanol genuke, disko honetan agertzen den zenbait kantariaren artean baztertua izana. Eta derrepentean, bat batean zerutik aingeru guztiek etorri eta bazterkeria guztiak konpondu. Badi-rudi ere aingeru berek kantarien artean zeuden erlazio txarrak konpontzeko bidean jarri dituztela. Baliteke ere honela izatea eta Luis Iriondoren hitzak bide horretatik dihoaz "Hasieran lan honi eskuak erantsi behar genizkiola esan gendue-nean, inork ez zuen sinisten "egin beharko litzateken" lan hau aurre-ra joango zenik. Izan ere, gure herriko 15 kantariarekin hitzegiten hasi behar zan, talderik ezagunenak, abestalde herrikoi bat, moldatzai-leak, orkestra grabatzea eta solista kanpotar eta etxeokak, poeta eta bertsolari ezagunenak, euskal irrati eta telebistako pertsonaiarik ezagunenak... Lan ikaragarria zan bistan dagoenez. Baina, nork esan du gure herria erabat erdibiturik eta zatiturik dagoela? Irten kalera, aipa eza-zu IPARRAGIRRE-ren izena, eta... tirio eta troiarrak inguratuko zaiz-

Kantariak

Txomin Artola.
Beñat Axieri.
Anje Duhalde.
Iñaki Eizmendi.
Niko Etxart.
Imanol.
Lourdes Iriondo.
Itziar.
Gorka Knorr.
Xabier Lete.
Erremon Marticorena.
Oskorri.
Ibai Rekondo.
Xabier Saldias.
Patxi Urrestarazu.
Anton Valverde.
Urretxuko Herria.

Esatariak

Xabier Amuriza.
Txaro Arteaga.
Eguzki.
Bitoriano Gandiaga.
Jose Mari Iriondo.
Oskorri.
Ramón Rodó.

Grabaketa-teknikoak

Jean Phocas.
Joan Sirvent.

Grabaketa

Xoxoa - Galdacano.
Genma - Barcelona.

kizu, hika-mika guztiak ahaztu eta eskuartearen duzun proiektua bultzatzeko. "Ala izan bedi, eskerrak Iparragirre-ri.

Bestaldetik bultzatzaile arazoa aipatu nahi nuke. Bultzatzaile Eusko Jaurlaritzako kultur saila agertzen zaigu, Urretxuko udala ahaztu gabe, eta egile Jaime Yarritu edo Xoxoa. Hemen ere arazoak ez daude hain garbi. Orain arte XOXOA diskoetxeak bere politika jarraitu du kantu edo ta kantari bildumetan, hala nola Korrika eta Lemoizen aurkako Jardunaldietan, eta oso eszeptikoa izan da halako proiektu baten aurrean. Oraingoan, osteraz, ez da gauza bera gertatu eta honek alde batetik poztu egin nau, eta bestaldetik ez, zergatik izan den ez dakidalako.

Arazo bi hauek alde batera utzirik diskoarekin jarraituz moldaketen gaiarekin egiten dugu topo. Moldaketak Bartzelonan eta hemen, Euskal Herrian egin dira. Hemengoak Michael Ducau eta Luis Iriondoren artean, eta entzun ahal izan dugunez Oskorri taldeak barrarik izan du moldaketak egiteko ahalmena. Beste kantari eta partaide guztiek moldaketen arabera jarraitu behar izan dute, eta honek nolabait mugatu egiten ditu egileen adieazpideak. Bide horretatik ere abiatu dira partaideen kritikak, beren aportazioa eskasa izan dela eta moldaketak alde-z aurretik eginak zeudela. Moldaketak Luis Iriondo eta Michel Ducauren artean egin dira hemen, disko erdia, eta beste erdia Bartz-

lonan. Luis Iriondori dagokionez bigarren aldiz heltzen dio Iparragirreraren lanari, lehendabizikoa Patxi Andion kantariarentzat eta bigarrena oraingoan.

Diskoa eta kasetea azalpen liburuskara aterata dira, Iparragirreraren bizitzako datuak eta kantu guztien hitzak bertan agertzen direlarik, euskeraz, gaztelaniaz eta frantsesez. Baita ere partaideen argazkiak. Lagungarri txukuna benetan azalpen liburuskara hau.

Bukatzeko gauza bat, bultzatzailei dagokiena. Beldur naiz Eusko Jaurlaritzak daraman bide kulturala, hau da kultura arloan daraman jokabidea musikara ere zuzendu den eta liburu erreketara ahaztu barik musika eremuan jokabide hau izatea: musika nazionala. Eta Bilbon aurkeztutako lan baten bidez hasitako programa kulturala aurrera jarraitzea. "Euzko Salmoa" (sic) Euskadiko kantu epikoa bihurtu nahi eta oraingoan Iparragirre kantariaren gauza bera egitea. Ez dut uste lortuko duenik disko honetan partaide guztien omenaldi zintzoa agertzen baita, omenaldi zintzoa. Ba zen garaia Iparragirre gogoratzeko, baina gauzak beste batetara ere egin daitezke.

(1) Jakin izan dugunez Urkok ezetza eman zuen moldaketan arazoagatik eta bere arrazoiak azken MUSKARIAn agertzen dira (moldaketak eta estudioa).

NATXO DE FELIPE'ren "... ETA OSKORRI SORTU ZEN": Oskorriren historia ezagutzeko beharrezko diskoa.

Aurten OSKORRI taldeak 10 urte bete ditu. Baina ezagutzen dugun taldea eta hasierakoa ez dira berdinak eta zenbait aldaketa izan du taldeak urteetan zehar. Epe bi bereiz ditzakegu (lehenengo biak, gero ere izan ditu aldaketa batzuek baina guk, aldaketa hoiak erabat garrantzitsuak izanik ere, alte batera utziko ditugu

oraingoan lehen epeak bakarrik arduratzen baikaitu).

- Lehen, 1971ean hasita, taldea sortu zenean hain zuzen. Ordura arte Natxo bere aldetik ibiltzen oi zen, bakarrik. Lau kideren artean sortu zuten taldea, gerotsuago Deustuko ikasle gazte batzuek sartu zirelarik, baina hauek ikasleak izanik ezin izan zuten aurrera jarraitu eta taldea desegin egiten da.

- Bigarrena, guk ezagutzen duguna, oraingoa, 1973/1974 urteen artean hasi dena, taldea desegin ondoren disko bat grabatzeko bersortzen da.

Lehen epea hobeto ezagutzeko eta aurten taldeak 10 urte bete dituelarik kaleratzen dute disko berri bat,



Lehen aldea.

- Bertolt Brechten gorazarrez
K. Weill-G. Aresti
- Kristo, ni eta gizonak
N. de Felipe-G. Aresti
- Non zauden ez dakit
Herrikoia-A. Irigoyen
- Txili
Bixente Martinez-G. Aresti
- Dabil Beharrean
N. de Felipe-G. Aresti
- Agur jaunik
Herrikoia-G. Aresti

Bigarren aldea

- Aiango herrian
Herrikoia-G. Aresti
- Kexa eta promesa
N. de Felipe-G. Aresti
- Kapitan pilotu
N. de Felipe-G. Aresti
- Zergatik zara zu mitozale
N. de Felipe-M. Zarate
- Ene maiteari
N. de Felipe
- Ogi lurrari
Herrikoia-G. Aresti.

baina Natxo de Felipek bakarrik izenpeturik. Dena dela gaurko Oskorri osoak hartzen du parte.

Orduan zergatik Natxo de Felipek izenez bakarrik? Agian Natxo lehen alditik iraun duen kantari bakarra delako (Bigarren aldikoak ditugu berriz Anton eta Bixente). Orduan Natxori sor zaio omenaldi hau. Baita ere "Oraingo hau hain lan heterogeneoa izanik (1968-1975 arteko urteetako kantuak dituelarik) ez zaigu egokia iruditu Oskorri izenez izenpetzea, batez ere hiru hilabete barru edo, Oskorriren kantu berriek osaturiko disko berri guztiz diferente bat kaleratuko dugunean. (Natxo de Felipek) (1).

Edozein talderen hasierak gogorak badira, Oskorrirenak askoz gogorragoak, eta egunen batetan honetaz luzez arituko gara Oskorriekin. Baztertua, boikoten artean eta orduko giroaren eraginez ez zuen taldeak harrera onik izan. Baina aurrera jo eta gaur iadanik gaituztu dituzte larrialdi haiek. Oraingo diskoa epe hura ezagutzeko beharrezko dokumentoa genuke eta horregatik gorde dira lehenengo konponketak "Kantuok grabatzerakoan lehenengo konponketakin egin ditugu, hots, bereziki Anton Latxa, Bixente Martinez, Xabier Lakuntza, Jose Luis Fraile eta bostok egindakoekin". (Natxo de Felipek). Hemen agertzen den zenbait kantu lehendik ere ezagunak genituen ("Kristo, ni eta gizonak" esaterako buruak huts egiten ez badit) Natxo de Felipek ateratako zinta sasipirata baten bidez.

Diskoa beraz 1968-1975 arteko urteetako kantuek osatzen dute eta lehen disko nagusia-Oskorri izenez-1976.eko abenduaren -1976.eko abenduan kaleratuko dutelarik, Gabriel Aresti hil ondoren. Nabaria beraz G. Arestiren laguntza eta ispiritua, baita ere Mikel Zaraterena kantu batetan "Zergatik zara zu mitozale" kantuan ("Aita semeak" kantuen egilea).

Kanta gogorak, errealistegiak akaso beren aldirako, urte askotan zentsura muga pasatu ezin izan zutenak. Zorionak OSKORRI taldeari eta aurrera jarraitzeko gogorik izan dezaten.

Ohar bat: Hurrengoan azala hobe zaintzeko eskatuko genizueke dis-

koa gehien batez mamia bada ere, azala ezin ahaztu eta zuek orain arte nahiko ondo zaindu duzue, nik uste. Oraingoan ez horrenbeste.

(1) Entzun dugunez grabatua daukate hurrengo diskoa Galdakaoko estudioetan eta laster argitaratuko "Adio Kattalin" edo izenpean.

Partaideak

Natxo de Felipe. boza eta gitarra
 Anton Latxa. gitarra akustikoa
 Bixente Martinez. gitarra elektrikoa
 Xabier Lakunza. dultzaina
 Jose Luis Fraile. dultzaina
 Polin Gurra. saxo eta flauta
 Aingeru Berquices. baxoa eta akordeoia
 Fran Lasuen. bibolina
 Jose Manuel Cacho. biola
 Jose Ramon Fernandez. txistu
 Javier Cortes. atabala
 Jean Phocas. grabaketa teknikoa
 Bittor Allende. azala
 Pedro Zarrabeitia. fotoa.

XIXUPIKA I. JOLASMOTRIZITATEA.

Imanol Urbietaren XIXUPIKA delako sailaren barruan beste disko kuttun bat. Zoragarria benetan Imanol edo Manolo Urbieta eta bere taldearen lana. Umeak eta ume mundua maite dituen "umetxo" honi mila esker. Eskerrak Imanol gure eta umeen partez.

LOYOLA GARMENDIAREN "GABON ABESTIAK"

Gabon kantuak, Juan Carlos Irizar donostiarrak egindako moldaketak eta Loiola Garmendia gaztearen abotsaz. Musika moldaketak, egia esan Iturraldearenak dira baina ideia Irizarrena eta Luis Iriondoren zuzendari-tzapean.

Garmendia izatez rock kantaria da, Atman taldekoa eta disko hau urrats berri bat litzateke bere bizitzan, esperientzia bat agian. Orain Atman taldearen lanaren zai gaituz.

OTXOAREN "LIBERATE"

Bilboko jaietan pertsonaia berezia izan zen Jose Antonio "Otxoa" orain diskogintzaren munduan sartu da XOXOA diskoetxearen bidez, "Herriak" delakoaren sailaren barruan. "Otxoa" Bartzelonatik ibili ondoren Bilbora etorri zen eta Amparo Bilbaorekin hasi Bilbon kantatzen.

Baina bere ospea Bilboko jaietan lortu zuen, ihazko jaietan hain zuen. "Anaitasuna" Arantza Elu kazetaria nere tabernara etorri zitzaidan eta bideorako abesti batzu grabatzea proposatu zidan, gero txosna batean jartzeko bideoa "eta Federiko Ezkerraren txoznan bota zen bideo-pelikula itzelazko ospea lortuz. Gerroztik ez dago Bilbo aldean "Otxoa" ezagutzen ez duenik.

"Emakumez jantzita "cuple"ak kantatzen dituen transformista sentitzen naiz" diosku. Musika zahar-rak, gaurko hitzak, samin samarrak: "Libérate, Mon cheri, mon cheri, Venga alegría..."

Joxe Ugarriza

OLENTZARO IZERTALDI

Gabonak datozenean urtero gabon abestiak izaten ditugu gure ahoetan. Hori dela eta aurtengo Gabonetarako disko berri bat plazaratu du XOXOAK, "Olentzaro izertaldi" izenpean.

Herri kantuek osaturiko diskoa. Lehen aldean: "Olentzaro", "Haur eder baten bila", "Gaueko izar" eta "Birjina maite". Bigarrenean: "Lo dago", "Gora gora", "Horra mari domingin", "Oi Bethlenen" eta "Hator, hator".

Musika moldaketak Juan Carlos Irizar donostiar musikarierenak dira, aurtengo disko bi atera dituena, bata pianoaren laguntzaz eta bestea "Gabon abestiak" diskoan moldaketak egiten eta zuzentzen. Hirugarrena dugu hau, beraz. Herri kantak Gabonetarako.

anaitasuna

Zabalbide, 68, entrlo
 Apartado, 495
 BILBAO-6

HARPIDETXARTELA - BOLETIN DE SUSCRIPCION

Jauna/Andrea

BIZILEKUA

HERRIA PROBINTZIA

AURREZKI KUTXA EDG BANKUA

ORDEZKARIA
 Sucursal

KONTU EDO LIBRETA ZENBAKIA
 Número de Cuenta o Libreta

Urtea Hilea Eguna

anaitasuna

IÑAKI LASARI

1—Halabeharrez udazken batez irria dio ebaki;
haren lagunok zer galdu dugun oraindik inork ez daki;
denontzat maite maitegarri zen gure bihotzaren zati,
baina inoiz ez zaigu hilgo geugan bizi da Iñaki.

2—Zenbat momentu pasa ditugu pozik elkarri kantatuz?

Egia denik ezin sinetsi orain hura gogoratuz;
zergatik joan zara, laguna,
gu hola abandonatuz?

Zeu izan behar hila zarena bizitza hainbat maitatuz!

3—Zeren bizitza maite zenuen lizar gazte bezala;
beti izan zara maitagarria denontzat bihotz zabala;
naturarekin bat-bat egina mamia eta azala;
hain maite zendun Amandre Lurrak barnean gorde zaitzala.

4—Bihotz beteaz bizi zinela guk denok dugu ezagun,
lagun guztiak gustura geunden zurekin gau eta egun;
benetakoak gutxi dira ta beti nahi zintugun lagun;
orain hobeto ohartzen gara zenbat maitatzen zaitugun.

5—Ama, senide eta lagunok barrena dugu mindua,
guretzat ia badirudi gaur amaitu dela mundua;
hitzik bazenu, ez tristatzeko zen zihur zure agindua;
zuk ez baina geuk behar genuke zure kontsolamendua.

6—Parrez esaten genuen "norbait joatean beste mundura,
kontatuko dugu denok alai, hortaz ez izan ardura".
Zein gutxi uste genuen laster zetorkigula tristura

orain indarrak galta zaizkigu betetzeko agindu hura.

7—Heriotzari zure izenean egiten diogu uko;
guk ez dugu nahi inola jarri jantsi beltza edo luto;
baina seguru egon, Iñaki,
ez zaitugu inoiz ahaztuko bizitza zinen eta bizitza ez da inoiz amaituko.

X. ZORROTZA

doinua: Uso zuria

1

Bukatu zaizu nekea
Iñaki lagun maitea!!
Iñaki lagun maitea!!
Zuhaitz jaioa, su bihurtua
eta orain berriz, kea...
Lortu orduko etorri zaizu
hain maite duzun **BAKEA**
hain maite duzun **BAKEA**

2

HAIZE, ITSASO eta LUR
ez eiozue esan agur!!
LUR: zuregana orain doa-ta,
ITSASO: lastertxo da ur,
orduaz zure uhainez HAIZE
—mesedez— Iñaki bihur
—mesedez— Iñaki bihur.

3

Euskal Herriko loreak
ez izan eskergabeak!!
ez izan eskergabeak!!
Iñakigandik hartutakoa
ez dezala jan sugeak,
erleei eman, beraien eztiz
bazkal daitezen umeak
bazkal daitezen umeak.

4

Zer, **EUSKARA** ta **NATURA**?
nora joan zaigun hura...?
nora joan zaigun hura...?

ez dakit baina aurpegiatik
ken ezazue tristura,
haren kideak asko gara-ta
zuek ezizan ardura
zuek ez izan ardura

5

Gogorra bada burdina
nolakoa ote mina...?
nolakoa ote mina...?
Une batean zapuz daiteke
bizitzan zehar egina.
Ea non zauden galdetuz gero
zer erantzungo dut, IÑA?
zer erantzungo dut, IÑA?

J. R. BILBAO

IÑAKI LASARI:

Beneukan,
Ahaztuta baino,
Gordeta zure existentzia,
Eta orain gogoratzen naiz
Zure barrearz,
Zure erre guturalaz,
Ihaurietan utzi zenuen biboteaz,
UEUko praka mo tzetaz...

"Tontoa" izan ahal du
Heriotzak?

Ez zait iñolaz ere balio
"Guztiao tokatu behar zaigu"
esaldia,

Eta galdezka gelditzen naiz,
Triste, guztiz triste...

Ez naiz sentitzen kapaz
Nolakoa zinen
Adierazteko:
Nahikoa zen zu ezagutzea.

Ez dakigu
Gure agurra
Hartuko duzun,
Eta hala ere
Bidaltzen dizugu:
"Gero arte" diotsugu
Negarrez,
Azentuazioa bere lekuan
Gorde nahiean.

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

URTARRILA							1	2	3
4	5	6	7	8	9	10			
11	12	13	14	15	16	17			
18	19	20	21	22	23	24			
25	26	27	28	29	30	31			

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

1	2	3	4	5	6	7		
8	9	10	11	12	13	14		
15	16	17	18	19	20	21		
22	23	24	25	26	27	28		
29	30	31	MARTXOA					

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

MAIATZA							1	2
3	4	5	6	7	8	9		
10	11	12	13	14	15	16		
17	18	19	20	21	22	23		
24	25	26	27	28	29	30		
	31							

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

UZTAILA							1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11				
12	13	14	15	16	17	18				
19	20	21	22	23	24	25				
26	27	28	29	30	31					

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

IRAILA							1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30								

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

1	2	3	4	5	6	7		
8	9	10	11	12	13	14		
15	16	17	18	19	20	21		
22	23	24	25	26	27	28		
29	30	AZAROA						

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

1	2	3	4	5	6	7		
8	9	10	11	12	13	14		
15	16	17	18	19	20	21		
22	23	24	25	26	27	28		

OTSAILA

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

APIRILA							1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11				
12	13	14	15	16	17	18				
19	20	21	22	23	24	25				
26	27	28	29	30						

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

	1	2	3	4	5	6		
7	8	9	10	11	12	13		
14	15	16	17	18	19	20		
21	22	23	24	25	26	27		
28	29	30	EKAINA					

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

ABUZTUA							1	
2	3	4	5	6	7	8		
9	10	11	12	13	14	15		
16	17	18	19	20	21	22		
23	24	25	26	27	28	29		
	30	31						

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

URRIA							1	2	3
4	5	6	7	8	9	10			
11	12	13	14	15	16	17			
18	19	20	21	22	23	24			
25	26	27	28	29	30	31			

Asteleoa Asteartea Asteazkena Osteguna Ostirala Larunbata Igandea

ABENDUA							1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12					
13	14	15	16	17	18	19					
20	21	22	23	24	25	26					
27	28	29	30	31							